

Gradu Amaierako Lana

Dialektoak eta fonetika adierazpide moduan: Itoizen kantagintza

Aitor Aranburu Cortés

Euskal Ikasketak

2019-2020 ikasturtea

Tutorea:

Dorota Urszula Krajewska

Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketen saila



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



LABURPENA

“Dialektoak eta fonetika adierazpide moduan: Itoizen kantagintza” izena duen Gradu Amaierako Lan (GRAL) honek 70. hamarkada amaieran sorturiko Itoiz euskal musika taldearen kantaerako bi fenomeno aztertzea du helburu: bata, taldekideen dialektoko ezaugarri fonetikoek abestietan duten presentzia maila aztertzea; eta bestea, Itoizen kantaeran fonetika adierazpide moduan erabiltzen den ala ez aztertzea.

Lanarekin hasteko Itoizen diskografia osotik bi album hautatu dira: *Musikaz Blai* (1983) eta *Espaloian* (1985). Halaber, hautaturiko bi albumotatik hamaika abesti hautatu dira azterketa objektu moduan; beraz, lan honetako analisia egiteko aztergaia Itoizen hamaika abesti izan dira. Hautaturiko abestiak entzun ondoren, haien transkripzio fonetikoa egin da, eta transkripzio fonetikoak erabili dira aztergai modura.

Lanaren egiturari dagokionez, bi zati nagusitan dago egituratuta. Lehenengo zati nagusia marko teorikoa da. Atal honetan, lanak aztertzea helburu dituen bi fenomenoak ulertzeko oinarriak aurkeztu dira: batetik Itoizeko taldekideen euskalkien ezaugarriak ekarri dira; hala, abeslaria mutrikuarra izanik, Deba ibarreko eta Debarrena eskualdeko hizkuntz ezaugarriak hartu dira kontuan, eta bestetik, aldaera estilistikoak eta adierazkortasun fonetikoak kantagintzan duen presentzia ekarri nahi izan da. Lanaren bigarren zati nagusia analisiaren atalari dagokio. Atal honetan hiru fenomeno aztertu dira. Lehenik, Deba ibarreko euskalkiko hautaturiko zazpi ezaugarri aztertutako abestietan duten presentzia maila aztertu da, ezaugarrien agerpen kopurua xeheki ekarriz. Bigarrenik, Itoizen kantagintzan diptongoak sortzeko moduak izan dira hizpide; izan ere, euskaraz ohikotasunean entzutera ohituta gauden diptongoez gain, beste diptongo mota batzuk ere aurkitu dira. Gauzak horrela, aurkitu diren diptongoen sailkapen bat proposatu da, proposamen horretarako literatura baliabideak erabili direlarik. Hirugarrenik, [b, d, g] herskarien eta [β, ð, γ] hurbilkarien azterketa bat egin da; izan ere, hotsok egotea espero ez zen testuinguruetan egotea suertatu da abestietan zehar. Hori horrela, hots horien agerpen maila xeheki zehaztu eta sailkapen bat egin da.

Lanarekin amaieran ondorioak eta erabilitako erreferentzia bibliografikoak daude jasota. Halaber, bukatzeko eranskin moduan lana egin ahal izateko erabili eta sortu diren euskarriak erantsi dira.

Aurkibidea

0.	Sarrera	4
1.	Marko teorikoa.....	5
1.1.	Arlo dialektala	5
1.1.1.	Euskararen dialektoak: azterketa garaiak	5
1.1.1.1.	Atzera begira: lehen azterketak.....	5
1.1.1.2.	Euskalkiak egun	6
1.1.2.	Mutrikuko euskarara gerturatze bat	7
1.1.2.1.	Mutriku eta Mutrikuko euskara.....	7
1.1.2.2.	Deba ibarreko euskararen fonologia	8
1.1.2.3.	Debabarrena eskualdeko bereizgarriak.....	9
1.2.	Aldaera estilistikoak hizketan zein kantuan.....	9
1.2.1.	Hizkuntzaren izaera bateratzailea.....	9
1.2.2.	Abeslarien hizkuntz erabakiak	11
1.2.3.	Fonetika kantagintzako adierazpide moduan.....	12
2.	Lanerako hipotesia.....	14
3.	Laginaren aurkezpena eta lanerako metodologia	14
3.1.	Lagina.....	14
3.2.	Lanerako metodologia	15
4.	Analisia.....	15
4.1.	Euskalkia Itoizen kantaeran	15
4.1.1.	Agerpenak kopuru zehatzetan	16
4.1.2.	Ezaugarriez banan-banan	17
4.2.	Metrikaz eta diptongoez	21
4.2.1.	Itoiz eta diptongoak.....	22
4.3.	Herskariak eta hurbilkariak: [b, d, g] eta [β, ð, γ]	25
4.3.1.	Herskariak eta hurbilkariak Itoizen.....	26
4.	Ondorioak	28
5.	Bibliografia erreferentziak	30
6.	Ikus-entzunezko erreferentziak	33
7.	ERANSKINAK.....	33
1.	ERANSKINA: ABESTIEN TRANSKRIPZIO FONETIKOAK	33
2.	ERANSKINA: EUSKALKIAK ITOIZEN KANTAERAN (datuak abestiz abesti)40	
3.	ERANSKINA: DIPTONGOAK ITOIZEN (datuak abestiz abesti)	47
4.	ERANSKINA: HERSKARIAK ETA HURBILKARIAK (datuak abestiz abesti)..	50

0. Sarrera

Hamaika dira kantagintzaren inguruan egin diren lanak; are, gurera ekarrita, hamaika dira euskal kantagintzaren inguruan egin diren lanak, izan XIX. mendearen bigarren erditik aurrera plazarik plaza ibili ziren *Euskal Lore Jokoetako* bertsolarien bertsokerari buruzkoak (Lekuona, 1982; 1998) edota izan XX. mendearen erdiaz geroztik Euskal Herriak hartu zuen *Euskal Kantagintza Berriari* (Aristi, 1985; 2020) buruzkoak.

Aurkeztera natorren lan honek ez du xedetzat kantagintza bateko ala besteko ezaugarri semantikoak aztertzea; ez du xedetzat ezein garaitako letrek unean uneko kultur egoerari edo egoera politikoari egin dizkioten ekarpenak aztertzea. Finean, lan honen helburua ez da kantagintzak garai historiko bakoitzean izan duen sona eta eragin politiko maila zein izan den aztertzea. Kontrara, lan honetan kantagintzaren arlo fonetikoari jarriko diogu arreta. Hainbat izan dira nazioarteko abeslarien ebakerari eta ahoskerari buruz egin diren lanak, baita abeslariak abesterako orduan darabiltzaten hotsak aztertu izan dituzten lanak ere (Trudgill, 1983; Simpson, 1999; Coloma, 2012). Norabide horretan kokatzen da lan hau, hots, kantariak abesterako orduan izan ditzaketan aldaera, erabaki edota ezaugarri fonetikoak zein diren aztertzea du jomugatzat lan honek.

Horretarako, 70. hamarkada amaieran sortu eta ibilbide oparoa izan zuen musika talde baten abestiak aztertuko dira: Itoiz. Zehatzago esanda, Itoizen ibilbideko bi albumetako zenbait kanta izango dira aztertuko direnak: *Musikaz Blai* (1983) eta *Espaloian* (1985). Arestian aipatu bezala, album horietako kanten ahoskera eta hotsen ekoizpen modua izango da aztergaia. Izan ere, batetik, abesterako orduan euskalkiek eraginik ba ote duten aztertu nahi da; eta, bestetik, Itoizen abestietan ahoskerak eta erabaki fonetikoek kanten adierazkortasunean eta testuinguru musikalean duten garrantzia aztertu nahi da.

Lan honek hainbat atal izango ditu. Lehenik, marko teorikoa garatuko da; bertan, Itoiz taldeko abeslariaren – Juan Carlos Perez (Mutriku, 1958) – jaioterriko ezaugarri linguistiko eta dialektalak zein diren adieraziko da. Era berean, abeslariak abesterako orduan erabiltzen dituzten aldaera linguistikoak zein diren ere zehaztuko da. Jarraian, corpusaren aurkezpena eta azterketak hartuko du lekua. Azterketa hiru ataletan banatuko da. Hasteko, 4.1. atalean Itoizen kantaeran euskalkiak duen garrantziaz hitz egingo da. Bestalde, Itoizen kantaeraren bi fenomeno berezi aztertuko dira: 4.2. atalean diptongoak eta 4.3. atalean herskariak eta hurbilkariak.

1. Marko teorikoa

Lan honek bi dituen helburuak bi dira: batetik, Itoiz taldeko abestietan euskalkiak nola islatzen diren aztertu nahi da; eta bestetik, euskalkien tasunak albo batera utzita, abesterako orduan ekoizten diren hotsek kantaren izaeran edo nolakotasunean zerikusirik ba ote duten aztertu nahi da. Gauzak horrela, marko teorikoan gai hauek jorratuko dira: batetik, 1.1. arlo dialektala atalean euskararen dialektoen inguruan historian zehar eginiko hainbat ikerketa eta sailkapen ekarriko dira, eta atalaren amaieran Debarrena eskualdeko euskararen ezaugarriak zein diren adieraziko da; 1.2. atalean hizketan zein kantuan hizlariak edota abeslariak erabiltzen dituzten aldaera estilistikoak izango dira hizpide, besteak beste, hizkeratik hizkerara aldatzearen arrazoiak izango dira hizpide, eta atala amaitzeko, fonetikak abestiaren adierazkortasunean izan dezakeen izaera osagarria izango da mintzagaia.

1.1. Arlo dialektala

1.1.1. Euskararen dialektoak: azterketa garaiak

1.1.1.1. Atzera begira: lehen azterketak

Euskararen dialektoez gagozkion honetan beharrezkoa deritzot atzera begiratzea eta horien inguruan egon diren eztabaidak eta sailkapenak ekartzea. Hasteko, atal honetan euskararen dialektoez mintzatuko gara; euskalkiez, alegia. *Euskalki* hitzaren bitartez izendatu zituen Arana Goirik (1865-1903) euskararen dialektoak, eta ondoren, 1919an Euskaltzaindiak ontzat jo zuen.

Ez dira berriak herritik herrira eta inguru geografikotik inguru geografikora euskararen nolakotasunak aldatzen direla jasotzen dituzten erreferentziak. Halaber, ez da berria hizkuntz aldaketa horiek elkarren arteko antzekotasunen eta desberdintasunen arabera sailkatzea. Euskalkien sailkapenean letra gizon hauek aipa ditzakegu: lehenengoa Oihenart XVII. mendean; bigarrena Larramendi, XVIII. mendean; Bonaparte hirugarrena, XIX. mendean (Zuazo, 2014: 15).

Oihernartek (1592-1667) bere *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitaniae* (1638) liburuan eman zituen aditzera lehenengoz euskalkiak. Euskalkien sailkapenean berrikuntza bat egin zuen; izan ere, euskalkiak ez zituen lurraldeen mugen arabera bereizi, antzinako leinuen arabera baizik. Horrela, lau izan ziren bereizi zituen euskalkiak: akitaniarrena, baskoiena, barduliarrena eta autrigoiena (Zuazo, 2014: 15-16).

Larramendi (1690-1766) izan zen euskalkiak sailkatzen saiatu zen bigarrena, eta hiru izan ziren andoaindarrak bereizi zituen euskararen hitz egiteko erak: bizkaitarra, giputza eta nafar-lapuritarra (Larramendi, 1729: 12; apud Zuazo, 2014: 17). Oihenart ohartu zen moduan, Larramendi ere ohartu zen herrialdeen mugak ez zetozeela euskalkien mugekin bat, ohartu baitzen, esaterako, Deba ibarrean Bizkaiako ezaugarriak zituen euskara egiten zela (Zuazo 2014: 18).

Euskalkien azterketa egiten hirugarrena Louis-Lucien Bonaparte (1813-1891) izan zen. Bonaparte Printzearen helburua bere garaian egiten ziren euskaren mapa bat egitea zen. Horrela, zortzi izan ziren bereizi zituen euskalkiak; eta horiek, aldiz, hiru multzo handitan sailkatu zituen: “mendebaldekoa”, Bizkaiako euskarek osatzen zutena; “erdigunekoa”, giputzak, iparraldeko eta hegoaldeko nafarrak eta lapurtarrak osatzen zutena; eta “ekialdekoa”, zuberotarrak eta ekialdeko eta mendebaldeko behe-nafarrak osatzen zutena (Zuazo, 2014: 19).

1.1.1.2. Euskalkiak egun

Bonaparte Printzearen euskalkien mapa urte luzez iraun duen mapa bat izan da euskal dialektologian, Zuazoren (2014: 31) arabera euskal dialektologian eginiko aurrerapen txikien ondorio da egoera hori.

Era berean, Bonapartek bere euskalkien mapa osatu zuenetik hainbat izan dira euskararen inguruan jazo diren gertaerak. Batetik, Euskaltzaindiaren sorrera 1919an, euskara zaintzea, zabaltzea, batzea eta hobetzea helburu duen akademia, hain justu. Bestetik, hizkera estandar baten sorrera, euskara batuaren sorrera, alegia, 1968an. Zalantzarik gabe, bi fenomeno horiek euskararen egoeran eragina izan duten fenomenoak dira.

Horren aurrean, Zuazok (2014: 76) gaur egungo euskalkien inguruan proposatzen duena hau da: 5 euskalki, 11 azpieuskalki eta 16 hizkera. Hauek dira, hain justu, proposatzen dituen euskalkiak: lehenik, *mendebaldekoa*, bi azpieuskalki eta zazpi hizkerekin; bigarrenik, *erdialdekoa*, hiru azpieuskalki eta hiru hizkerekin; hirugarrenik, *nafarra*, lau azpieuskalki eta hiru hizkerarekin; laugarrenik *nafar-lapuritarra*, bi azpieuskalki eta hiru hizkerekin eta, bosgarrenik, *zuberotarra*, azpieuskalki eta hizkerarik gabea (Zuazo, 2014: 78).

1.1.2. Mutrikuko euskarara gerturatze bat


1.1.2.1. Mutriku eta Mutrikuko euskara

Mutriku Gipuzkoako ipar-mendebaldean dagoen udalerria da. Bizkaiarekin muga egiten duen herria da; Ondarroarekin, Berriatuarekin eta Markinarekin, hain justu. Deba ibarrean dago Mutriku, Debabarrena eskualdean zehazki.

Mutrikuko euskararen inguruan jakiteko Deba ibarrari erreparatu beharra daukagu. Deba ibarreko euskararen atalik mardulena mendebaldeko euskalkiari dagokio. Dena den, ibarraren iparraldea erdialdeko euskalkitik gertu dago eta mendebaldeko eta erdialdeko euskalkien arteko lotura egiten du; tartean, Mutrikuko euskarak (Zuazo, 2014: 79). Hau dio Zuazok (2006: 45-46) Debabarrenako hizkerari buruz:

Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko hizkerak dira sailkatzen zailenak. Azken batean, ez han eta ez hemen sailkaezinak dira. Euskalki batetik eta bestetik elikatu dira, eta euskalki bataren eta bestearen ezaugarriak dituzte aldi berean, Bizkaikoak bezala Gipuzkoakoak. Euskalkien, azpieuskalkien eta hizkeren arteko mugak lerro zehatz eta bakarraz bereizi dira Bonapartez gero etorri zaigun tradizioan, baina “tarteko hizkerak” aipatu izan dira Euskal Herritik kanpoko dialektologiagintzan. Elgoibarkoa, Mendarokoa eta Mutrikukoa horietakoak dira bete-betean.

Gauzak horrela, Zuazok (2006: 46) Mutrikuko hizkera tarteko hizkeratzat hartzen du, hau da, euskalki batetik beste euskalki batera dagoen hizkuntza eremu moduan. Horrela, Deba ibarrean hiru hizkuntza eremu bereizten ditu: Debabarrena (mendebaldeko



1. Irudia: Deba ibarreko hizkerak (Zuazo, 2006: 47)

eta erdialdeko euskalkien arteko lotura), erdigunea (mendebaldeko hizkera) eta Debagoiena (mendebaldeko hizkera).

1.1.2.2. *Deba ibarreko euskararen fonologia*

Atal honetan deskribatuko diren bilakabideak ondoren gure corpora aztertzerako orduan baliagarriak izango diren bilakabideak izango dira.

Bokalak

- 1) Euskal Herriko txoko askotan egiten den moduan, Deba ibar osoan ere /e/ → [i] / __ {a, e, o} eta /o/ → [u] / __ {a, e, o} egiteko joera dago: [boliyrafua] ‘boligrafoa’; [eznie] ‘esnea’ (Zuazo, 2016: 58).
- 2) Ø → [ʃ] / i__ {a, e, o}. Deba ibarreko bereizgarria den hotsa dugu hemen [ʃ]. Horrela: [mendiʃa], [mendiʃe] ‘mendia’ (Zuazo, 2016: 58).

Kontsonanteak

- 3) Lau kontsonante txistukariak neutralizatu eta bitara ekarri dira Deba ibar osoan, horrela, igurzkariak apikariak [ʂ] dira eta afrikatuak lepokariak [tʃ]. Mendebaldean eta Gipuzkoako herri askotan dagoen ezaugarria da hau (Zuazo, 2006: 63).
- 4) Erdialde osoan bezala, hitz hasieran [x] ahoskera nagusitu Deba ibar osoan: [xaβe] ‘jabe’, [xaj] ‘jai’, [xajtʃi] ‘jaitsi’, [xantʃi] ‘jantzi’, [xarðun] ‘jardun’, [xari] ‘jarri’, [xaʂo] ‘jaso’... (Zuazo, 2006: 64).
- 5) Asimilazio bustidura indartsua da Deba ibar osoan, horrela, hainbatetan aurki dezakegu (Zuazo, 2006: 65):
 - a. /l/ → [ʎ] / i__V. Esaterako, [iʎun] ‘ilun’.
 - b. /n/ → [ɲ] / i__V. Esaterako, [iɲon] ‘inon’.
 - c. /t/ → [c] / i__V. Esaterako, [ico] ‘ito’.
 - d. /ind/ → [iɲɟ] / __V. Esaterako, [iɲɟar] ‘indar’.
 - e. /ild/ → [iʎɟ] / __V. Esaterako, [biʎɟur] ‘beldur’.
 - f. /int/ → [iɲc] / __V. Esaterako, [piɲcura] ‘pintura’.
- 6) Hego Euskal Herriko beste alderdi batzuetan bezala, /tt/ → [tʃ] / i__V egiteko joera dago Deba ibarrean: [itʃo] ‘ito’, [ditʃu] ‘ditu’ (Zuazo, 2006: 65).

- 7) *ez* partikula zenbait hitz eta adizkirekin lotzerakoan ahoskeran aldaketan izan ohi dira:

$/b/ \rightarrow [p]$ eta $/d/ \rightarrow [t]$ / $\left\{ \begin{array}{l} + \text{ igurzkari} \\ + \text{ hobikari} \end{array} \right\}$ ___V. Esaterako, [espasatos] ‘ez bazatoz’; [estakiyu] ‘ez dakigu’.

- 8) $/s/ \rightarrow [t\text{ʃ}]$ / $\rightarrow \left\{ \begin{array}{l} + \text{ hobikari} \end{array} \right\}$ ___.

Esaterako, [giltʃa] ‘giltza’; [entʃun] ‘entzun’; [ertʃa] ‘ertza’. Bi hitz batzen direnean, ordea, mendebalean [s] nagusitzen da: [il ʃiren] vs. [il tʃiren]. Deba ibar gehienak bat egiten du mendebaldearekin, dena den, Debabarrenean sarri entzuten da [tʃ] (Zuazo, 2006: 68).

1.1.2.3. *Debabarrena eskualdeko bereizgarriak*¹

Gipuzkoako eta Euskal Herriko erdiguneko bereizgarriak oso sustraituta egotea da eremu Debabarrenako ezaugarria; baita mendebaleko zenbait berrikuntza hara heldu ez izana ere. Hauek dira guk kontuan izango ditugunak:

- 9) *Izan*-en pluraleko adizkietako /e/ erroa: [gera] ‘gara’; [sera] ‘zara’; [serate] ‘zarete’. Elgoibarren ez da erabatekoa; /a/ erroa ere badira.
- 10) **edun*-en orainaldiko adizkietan /e/ erroa erabiltzen da Deban, Mutrikun, Mendaron eta Elgoibarko Altzola auzoan: [det] ‘dut’.
- 11) [dixua] ‘doa’ gisako adizkiak erabiltzen dira Deban eta Mutrikun; [dixe] ‘doa’, [dixes] ‘doaz’ bereziak Elgoibarren eta Mendaron.

1.2. Aldaera estilistikoak hizketan zein kantuan

1.2.1. Hizkuntzaren izaera bateratzailea

Soziolinguistikak aspaldidanik adierazi izan du hizkuntza talde bateko elkartasun eta kontzientzia sortzeko sinbolo bat dela, talde identifikaziorako erreminta bat dela, alegia. Askotan, talde bat baino gehiago dagoenean, hizkuntzak talde horien arteko desberdintasunen *definitzaile* papera joka dezake (Hernández Campoy, 1996: 871).

¹ Ezaugarri hauek Zuazo (2015) web orrialdetik daude aterata
<http://euskalkiak.eus/hizkeraz_hizkera.php>

Hizkuntzaz eta hizkuntzaren izaera bateratzaileaz ari garelarik, ordea, beharrezkoa deritzot hizkuntzarekin batera *hizkera* ekartzea. Hernández Campoyk (1996: 872) dio hizkera hizkuntza baten barneko aldaera mota bat dela, zeinak desberdintasun sozial bat inplikatu dezakeen hizkera bat ala beste darabilten hiztunen artean. Horrela adierazten du Hernández Campoyk (1996: 871) hizkuntza batek izan dezakeen indar bateratzailea:

La lengua puede actuar como una característica *definidora* y los individuos se identifican a sí mismos como pertenecientes a un grupo étnico determinado dependiendo de cuál de las lenguas habladas de la comunidad sea la suya materna.

Cutillasek eta Hernández Campoyk (2018) dioenaren arabera, hiztunok egoera jakin bakoitzean izan ditzakegun hizkuntza aldaera edo aldaera estilistikoak hainbat arrazoi izan ditzakete, hau da, momentu bakoitzean erabiltzen dugun hizkerak edo aldaera estilistikoak unean uneko erreakzio sozialari erantzuten dio, eta hori, faktore hauen arabera dela proposatzen du:

- (1) Hizkuntzari jartzen zaion arreta, hau da, zenbat eta arretan handiagoa jarri orduan eta formalagoa izango da hizkera; kontrara, zenbat eta arreta txikiagoa jarri, orduan eta informalagoa izango da hizkera (Labov, 1996; Trudgill, 1974).
- (2) Hizkuntza merkatuaren arabera (Bordieu eta Boltanski, 1975; Sankoff eta Laberge, 1978) edo entzuleen nolakotasunen arabera erabaki estilistikoak hartzea (Bell 1984, 1991, 2001).
- (3) Hizlariak bere irudi jakin bat eraiki nahi duenean bere islapen soziala modu batera ala bestera egokitzeko aldaera estilistiko bat edo beste erabiltzea (Coupland 1980, 1985, 2001).

Gauzak horrela, hainbat dira jendaurreko hizlarien aldaera estilistikoen inguruan egin diren azterketak, haien erabaki linguistikoen arrazoiak batzuk zein besteak direla argituz. Azterketa horien artean koka dezakegu Cutillasek eta Hernández Campoyk (2018) eginiko ikerketa; izan ere, Murtziako politikariek hitz egitean zituzten ezaugarriak aztertu zituzten. Azterketa horretan Murtziako kargu politiko garrantzitsuek jendaurrean hitz egitean erabiltzen zituzten elementu dialektalak eta elementu estandarrek aztertu zituzten. Hortik, Murtziako presidente ohiak, bere arerio politikoen kontrara, bertakoak ziren ezaugarri dialektalak erabiltzen zituela ondorioztatu zuten (Cutillas & Hernández Campoy, 2018: 17). Murtziako irakasleek proposatzen dute politikariak aldaera estilistiko

hori nahita erabiltzen duela, izan ere, *herri hizkerako* ezaugarri horiek langile mugimenduari oso loturiko ezaugarriak direnez, bere izaera eta identitate sozialista eraikitzeke eta kanpora begira bere burua erakusteko estrategia bat dela diote (Cutillas & Hernández Campoy, 2018: 20).

1.2.2. Abeslarien hizkuntz erabakiak

Arestian aipatu bezala, hizkuntzak eta hizkerak etnia, maila sozial edo bestelako ezaugarriak dituen talde baten izaera markatzeko erreminta moduan balio dezake, era berean aldaera estilistikoek esanahi jakin batzuk izan ditzaketela ere adierazi dugu. Hori horrela, hizketa ekintzak ez ezik, musikak ere balio dezake taldeen izaeraren batasun edo kohesio hori lortzen. Roberto Giacomellik (1988; apud Trudgill, 1983), esaterako, dio pop-rock hizkuntza hizkuntza-zeinu sistema bat dela, komunitate baten atal zabalago edo txikiago baterako adierazgarriak diren mezu ideologiko eta balio jakin batzuk transmititzen dituen, ezaugarri identifikatzaile eta definitzaile gisa.

Bide horretan doa Peter Trudgill-ek (1983) eginiko ikerketa; izan ere, pop eta rock generoak abesten dituzten abeslari britainiarren azentua aztertu eta desberdintasunak antzeman zituen abesten ari diren eta hitz egiten ari diren uneen artean. Chambersek eta Trudgillek (1999: 5) azentua honela definitzen dute: “‘Accent’ refers to the way in which a speaker pronounces, and therefore refers to a variety which is phonetically and/or phonologically different from other varieties.” Halaber, ondorioztatu zuen abesterako orduan darabilten azentua geografikoki oso azentu mugatua dela. Azentua aztertu ondoren, ondorioztatu zuen abeslari horiek erabilitako azentua eta ahoskerak ez direla inondik inora ere Britainia Handiko ingelesaren aldaerak (Trudgill, 1983: 252), Estatu Batuetako eremu jakin bateko ezaugarriak baizik (Trudgill, 1983: 253). Honako hau dio Trudgillek (1983: 253):

Le Page in a number of writings (see Le page 1968, 1975, 1978; Le Page et al., 1974) seeks to demonstrate a general motive for speakers’ linguistic behaviour in terms of attempts to ‘resemble as closely as possible those of the group or groups with which from time to time we (speakers) wish to ‘identify’ (...) In Le Page’s terms, British pop singers are attempting to modify their pronunciation in the direction of that of a particular group with which they wish to identify. (...) This group can be characterized by the general label ‘Americans’ (...) and the are stereotypically associated by the British with American pronunciation.

Abeslariak egiten dituzten aldaketa estilistikoetan haiek berezkoak ez dituzten hotsak eta ahoskerak darabiltzate; eguneroko hizketan erabiltzen ez dituzten hotsak txertatuz hitzen ekoizpenean. Hizketa ekintzan egin den moduan, kantagintzan aldaera estilistiko bat edo bestea erabiltzeko ere zenbait arrazoi zerrendatzen ditu Trudgillek (1983: 254-258):

- (1) Norberaren eredu taldea identifikatzeko eta haien ezaugarriak kontzientziaz ala inertziaz bereganatzeko gaitasuna.
- (2) Norberaren eredu taldeak erabiltzen dituen portaerak eta arauak zein diren identifikatzeko eta haiek aztertzeko eta lantzeko gaitasuna.
- (3) Gure jokatzeko era aldatzeko gaitasuna (orokorrean, gero eta helduago orduan eta aldaketa gutxiago).

1.2.3. Fonetika kantagintzako adierazpide moduan

Ahozko musikaren interpretazioan ahoskerak paper garrantzitsua dauka; izan ere, bera baita musikaren eta letraren arteko kohesioa bermatzeko erreminta (Nicolás, 2018: 2). Horregatik, kantagintzako adituen formakuntzaz arduratzen diren instituzioetan katurako gaitasun fonetikoaren garapena bilatzen dute (Carranza eta beste, 2013).

Modu egoki batean ekoiztiko testu batek, hau da, arau fonetikoak egoki erabilitako testu bat ekoizteak, Carranza eta besteren (2013: 6) esanetan onura hauek ditu:

Uniformidad de las vocales, precisión en la afinación, empaste del conjunto, una articulación mejorada, mejor enunciación y claridad del texto, precisión rítmica, control de los niveles dinámicos, uso del manejo del aire.

Dena den, Nicolásek (2018: 3) dioenaren arabera, kantaren “exekuzio ona” garatzeko ahoskeraren azterketa auzi teknikoaren zerbitzura soilik jartzeak, abeslariak ahoskeraren bitartez garatu ditzakeen adierazpen ahalmenen mugatzea dakar. Izan ere, nahiz eta zenbait adituentzat ahoskera teknikaren baitan sartzen den fenomeno bat den – abesteko objektua den piezaren edukian eta zentzuan zerikusirik ez duen fenomeno bat –, beste zenbaitentzat kantetan dagoen intenzionalitate poetikoan ahoskerak eta fonetikak garrantzia berezia dauka (Nicolás, 2018: 5).

Adierazkortasunari dagokionez, kantagintzan, kantariaren rolari eta berak egiten duen *performance*ari jarri izan zaio arreta. Hala, esan izan da, adierazteko erabiltzen den moduak komunikatzea bilatzen duela, hau da, modu batera espresatuta gauza bat adieraziko da eta beste modu batera espresatuta beste gauza bat adieraziko da. Komunikatzaileak, gure kasuan abeslariak, une horretan emozioak, ideiak, sentsazioak pentsamenduak... komunikatzeko intentzionalitatea dauka (Nicolás, 2018: 7). Beraz, historikoki kantagintzaren irakaskuntzan fonetikak izan duen “exekuzio ona” definizioaren aurrean, hau da Nicolásek (2018: 7) dioena:

Alarcos Llorach (1950), en el ámbito de la poesía, y Posadas de Julián (2008), en el canto lírico, proponen que los fonemas, que son tradicionalmente entendidos como estructuras lingüísticas desprovistas de significado, adquieren valor expresivo cuando son puestos en contexto (...) Sundberg (1987) afirma que es posible enriquecer la ejecución vocal mediante la incorporación de rasgos o detalles del habla emocional, como la duración de sílabas, fonemas y pausas, el contorno de afinación, la velocidad, la entonación y la precisión en la articulación (a lo que llama microentonación), sin quebrantar por ello la estructura musical dada (macroentonación).

Gaia gure lurraldeetara ekarrita, bada hitzek dituzten esanahiez gain hotsei ere adiera jarri dien kantaririk. Zalantzarik gabe, horietan sona handiena izan duen kantaria Mikel Laboa izan da. Laboaren sormen prozesuak hainbat garai izan zituen. Lehena kanta tradizionalen interpretazioari dagokio, 60. hamarkadan euskarak eta euskal kultura jasaten ari zen egoeraren aurrean, kanta tradizionalak berreskuratzeko hautua egin zuen, horiek bere garaiko erritmoetara egokituz. Bigarren garaian, garaiko eta bera baino aurreragoko olerkarien letrei musika jartzen hasi zen. Eta azkenik, hirugarren garaia Laboaren garai experimentalak izan zen: *Lekeitioen* garaia. Kanta horiek konposatzeko haurtzaroan Lekeitioko Gardata auzoan izandako momentuak, bertako jendearen euskalkia eta Gernikako bonbardaketaren soinuak gogoan izan zituen Laboak. Abiapuntua hori izanik, lan ildoak jorratzeko hitz solteak erabili zituen, hitzon esanahia alboratuz, oihi zein fonemekin jolasten zuen. Euskara eta beste hizkuntza batzuen sonoritateekin batetik bestera ibili zen, keinuz lagunduta jendearekiko komunikazio prozesuak bide berriak sortuz (Aurtenetxe, 2011: 388-390). Hau esan zuen Laboak 1980an *Lekeitioen* inguruan:

Lekeitioen ezaugarri nagusia, seguru asko, adierazpen-era berrien bilaketa da. Bertan, hitz zehatzak, esanahiz husturik, tokia egiten dio soinu, musika, fonetika eta garrasi bidezko adierazpenari.

2. Lanerako hipotesia

Lan honek oinarrian duen hipotesiak bi zati ditu. Batetik, ohikotasunean hitz egiterakoan darabiltzagun hotsek eta arau fonologikoek kantagintzan tokia dutela pentsatzen da; gehiago zehaztearren, Itoiz taldearen kantaeran erabiltzen diren hotsak eta arau fonologikoak taldekideen euskalkietako hotsak eta arau fonologikoak dira; horrela, hizketa ekintzako momentuaz gain, abesterako orduan ere ekoizten dituzte beren ohiko hizkerako hots jakin batzuk. Gauzak horrela, abesterako orduan kantariak bere berezko hizkera zenbateraino moldatzen duen ikusi nahi da; euskalkiko hotsak sartuta ala hizkera estandarrari loturiko hotsak erabilia. Bestetik, uste da hots baten edo beste baten erabilera musikak beharrezkoa duen testuinguruaren arabera ekoizten dela; hau da, uste da testuinguru musikalak hots jakin batzuen ekoizpena eta beste batzuen elipsia determinatzen duela; horrela, besteak beste, fonetika abestiaren exekuzioan adierazpide bilakaturik.

3. Laginaren aurkezpena eta lanerako metodologia

3.1. Lagina

Lan honetarako erabiliko den lagina Itoiz musika taldearen bi albumetako hamaika kanta² izango dira, izan ere, 1983. urtean argitaratutako *Musikaz blai* eta 1985ean argitaratutako *Espaloian* albumetako kantak aztertuko dira.

Itoiz 70. hamarkada amaieran Mutriku eta Ondarroako gazte batzuk sortu zuten euskal musika talde bat izan zen. Taldearen hasieran joera musikala *rock progresiboa* izan zen, eta beren lehenengo bi lanak genero horretan gauzatu zituzten. Denborak aurrera egin ahala haien kantaera eta generoa aldatu zuten, eta *rock progresiboa* egitetik *pop* generoko kantak egitera igaro ziren.

Lan honetan aztertuko diren bi albumak beraien bigarren garaiko albumetako kantak dira, hau da, *rock progresiboa* albo batera utzi eta *popa* egiten hasi zirenekoak. Hain justu, aztertuko dugun albumetako bat – *Musikaz blai* – haien lehenengo *pop* lana izan zen, Itoizen baitako inflexio puntu bat, esan daiteke. Azterketarako hautatu diren kantak³ hauek dira⁴: (1) *Ustela* (1983), (2) *Safari* (1983), (3) *Larunbaten azala* (1983), (4) *As noites da Radio Lisboa* (1983), (5) *Marea gora* (1983), (6) *Egun motela* (1985),

² Kanten *link*-ak *Eranskinak* atalean daude.

³ Kanten letrak eta haien transkripzio fonetikoak *Eranskinak* atalean daude (1. ERANSKINA).

⁴ Kanta bakoitzaren aurrean dagoen zenbakia (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11), lan osoan zehar kantak izendatzeko erabiliko den modua izango da.

(7) *Berandu da* (1985), (8) *Espaloian* (1985), (9) *Taxi horiak* (1985), (10) *Abar irratia* (1985) eta (11) *Clash eta Pistols* (1985).

Itoiz musika taldea hautatzearen arrazoiak, batetik, taldeko abeslaria – Juan Carlos Perez – mutrikuarra izanik eta bere euskara bertako izanik, Mutriku bezalako herri bateko hizkeraren ezaugarriak kantetan islatzen ote diren jakitea da, eta bestetik, Itoizen obraren eta estiloaren inguruko jakintza areagotzeko interes pertsonala da.

3.2. Lanerako metodologia

Analisi honetarako erabiliko den metodologiak izaera deskriptiboa dauka, hau da, aztertuko diren Itoizen abestietan dauden ezaugarrien azalpen bat egingo da. Lan hau egiteko, hasteko, Itoizen bi albumetako hamaika kanta aukeratu dira; ondoren, IPA erabiliz abestien transkripzio fonetikoa egin da. Esan bedi transkripzio fonetikoak egiteko, espektrogramen eta itzulpen tresnen faltan, intuizio bidezko transkripzio fonetikoa dela egin dena. Behin abestiak transkribatu ondoren, transkripzio fonetiko horiek erabili dira analisi objektu modura; beraz, 1. ERANSKINA atalean dauden transkripzioetatik atereak dira analisisian zehar aurkituko diren hitzak eta hotsak.

4. Analisia

4.1. Euskalkia Itoizen kantaeran

Hizkuntza batek eta hizkuntza horren dialektoek haien artean dituzten desberdintasunak, besteak beste, desberdintasun lexiko, morfosintaktiko, fonologiko eta fonetikoak dira. Atal honetan Itoizen abestietan aurki ditzakegun Debarrena eskualdeko ezaugarri fonetiko eta fonologikoak aztertuko ditugu.

Atal honetan Itoizen kantaerako euskalkien erabilera izango da hizpide. Horretarako, goian zerrendatutako hamaika ezaugarrietatik zazpi erabiliko ditugu, izan ere, aukeratu diren zazpi ezaugarriok dira testuetan emankorrenak diren ezaugarriak. Gauzak horrela, hauek dira mintzagai izango ditugun zazpi ezaugarriak:

1. /e/ → [i] / __ {a, e, o}; /o/ → [u] / __ {a, e, o}.
2. Txistukarien neutralizazioa: [s̺] eta [t̺ʃ].
3. [x] hotsa hitz hasieran.
4. Zazpi sabaikaritze mota.

5. /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurkzari, +hobikari)___ V; /s/ → [tʃ] / → (+hobikari)___.

6. Izan aditzaren pluraleko -e- erroa.

7. *Joan* adizki trinkoaren erroa [x].

Azpian orain arte zerrendatutako ezaugarrien agerpen maila xehetasunez adieraziko da 1. taularen bidez: euskalkiko arauak corpusean agertzen diren aldi kopurua (agerpenak); ondoren, Debabarrena eskualdeko ezaugarria den prozesu fonologikoa kantetan betetzen ote den (betetzen da) edo ez den betetzen (ez da betetzen) adieraziko da; bestetik, *Ezaugarriak banan-banan* atalean kanta bakoitzean agertzen diren ezaugarrien dialektalen analisisa egingo da.

4.1.1. Agerpenak kopuru zehatzetan

	Araua	Araua gauzatzea aurreikusten den testuinguru <i>kopurua</i> (<i>zenbakitan</i>) ⁵	Araua gauzatzea aurreikusten den tokian <i>betetzen da</i> (<i>zenbakitan</i>)	Araua gertatzea aurreikusten den tokian <i>ez da betetzen</i> (<i>zenbakitan</i>)
1.	/e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}	71	22 <i>Adb:</i> [kalia] (11); [mwermua] (3)	49 <i>Adb:</i> [malkoak] (9); [golpatʃea] (1)
2.	Txistukarien neutralizazioa: [ʃ] eta [tʃ]	Igurzkariak: 266	Neutralizatuta [ʃ]: 219 <i>Adb:</i> [awreʃ] (1)	Neutralizatu gabe [ʃ]: 47 <i>Adb:</i> [eʃ] (7)
		Afrikatuak: 68	Neutralizatuta [tʃ]: 62 <i>Adb:</i> [awtʃak] (4)	Neutralizatu gabe [tʃ]: 6 <i>Adb:</i> [ewritʃua] (11)

⁵ Abestiz abestiko datuak *Eranskinak* atalean (2.. *ERANSKINA*).

3.	[x] hotsaren nagusitasuna jarri, joan... gisako hitzetan	21	[x] hotsa agertzen da: 8 Adb: [xetʃi] (5)	[j] hotsa agertzen da: 12 Adb: [joan] (7)
4.	Sabaikaritzeak: /l/ → [ʎ] / i__V /n/ → [ɲ] / i__V /t/ → [tʃ] / i__V /ind/ → [iɲɲ] / __V /ild/ → [iʎɲ] / __V /int/ → [iɲc] / __V /tt/ → [tʃ] / i__V	59	59 Adb: [maju] (1); [iɲawteri] (2); [eɲiɲɲa] (3); [beɲɲur] (3); [ditʃut] (6)	0
5.	/b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurkzari, +hobikari) __V /s/ → [tʃ] / → (+hobikari) __V	25	0	25 Adb: [βear ɟajtut] (1); [oritʃen ɟajɲu] (5); [muʃikaʃ blaj] (5); [eɟða] (7)
6.	Izan aditzaren pluraleko adizkien erroa -e-	2	2 Adb: [ʃera] (1); [ɣera] (3)	0
7.	Joan aditzaren adizki trinkoen erroa [x]	1	1 Adb: [dixuʃ] (11)	0

1. Taula: Euskalkiak Itoizen

4.1.2. Ezaugarriez banan-banan

Lehenik, Deba ibar osoan presente dagoen bilakabidea izango da aztergai: /e/ → [i] / __ {a, e, o} /o/ → [u] / __ {a, e, o}. Zuazok (2006) dio bilakabide hau Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala Deba ibar osoan ere gauzatzen den bilakaera dela. Gure corpusari erreparatuta, (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11) kantetan agertzen da bilakabide hau, hau da, kanta guztietan presentzia duen bilakabide bat da. Adibidez: [jɟandakua] ‘izandakoa’ (1); [apurtʃia] ‘apurtzea’ (1); [batian] ‘batean’ (2); [keɲian] ‘ke pean’ (3); [mwermua] ‘muermoa’ (3); [itʃaljan] ‘itzalean’ (4); [maria]

‘marea’ (5); [moðernuk] ‘modernoak’ (6); [aʂmua] ‘asmoa’ (7); [iʂarpian] ‘izarpean’ (8); [paranojkwen] ‘paranoikoen’ (9); [iragarlik] ‘iragarleak’ (10); [kalia] ‘kalea’ (11)... Kontrara, bilakabide hau betetzen ez den adibideak ere aise aurki daitezke testuetan zehar, ikus bitez: [awrean] ‘aurrean’ (1); [golpatʂea] ‘kolpatzea’ (1); [ejʂean] ‘ehizean’ (2); [ajʂeak] ‘haizeak’ (4); [litroak] ‘litroak’ (5); [ijeak] ‘ileak’ (5); [gogoak] ‘gogoak’ (6); [majtearen] ‘maitearen’ (7); [kalean] ‘kalean’ (8); [malkoak] ‘malkoak’ (9); [ʂekʂoas] ‘sexoaz’ (10)... Taulan jasota dagoenari jarraituz, 22 aldiz gauzatu da bilakabide hau; aldiz, bilakabidea gerta zitekeen aldietatik 49tan ez da gertatu.

Bigarrenik, txistukarien neutralizazioaren aferari helduko diogu. Oñederrak (SEG) dio apikariaren eta lepokariaren arteko nahaste edo neutralizazioa aspalditik dela ezaguna mendebaldeko hizkeretan eta baita Gipuzkoako kostaldekoetan ere. Berdintzea ia beti apikariaren [ʂ] alde egiten da. Beraz, bi izaten dira euskalki horiek bereizten dituzten txistukari igurzakariak: apikaria [ʂ] eta sabai-aurrekoa [ʃ]. Zuazok (2014: 167) dio lau txistukariak bitara ekarri direla, hau da, txistukari igurzakariak apikari izatera [ʂ] eta afrikatuak lepokari izatera [tʂ]. Gure corpusari erreparatuta, kanta hauetan aurki ditzakegu hots hauek: (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7); (9); (10) eta (11), hau da, kanten kopuru handi batean aurki dezakegu fenomeno hau. Hauek dira aurki ditzakegun hitzetako batzuk: [giʂon] ‘gizon’ (1); [ʂaar] ‘zahar’ (2); [piʂtu] ‘piztu’ (3); [ajʂeak] ‘haizeak’ (4); [awtʂak] ‘hautsak’ (4); [aðiβiðeʂ] ‘adibidez’ (5); [lawʂotʂ] ‘lausotuz’ (6); [bijutʂik] ‘bilutsik’ (6); [eʂða] ‘ez da’ (7); [iriβaβeʂ] ‘hiri babes’ (9); [βeltʂeʂ] ‘beltzez’ (10); [diʂ] ‘diz’ (*dira* adizkiaren aldaera) (11)... Neutralizazioaren kontrara, aztertu den corpusean zehar aurki daiteke txistukarien arteko oposaketa. Horien artean, jar bedi arreta berezian *Espaloian* (8) abestian, izan ere, kanta horretako txistukariei erreparatuta, ez dugu neutralizaziorik aurkitu, lepokariak eta apikariak modu bereiztu batean ekoizten dira kanta honetan. Ikus bitez: [iʂkutatʂen] ‘ezkututzen’ (8); [ajʂ] ‘haiz’ (8); [ʂimplea] ‘sinplea’ (8); [ʂear] ‘zehar’ (8); [eʂðuʂu] ‘ez dugu’ (8); [iʂarpian] ‘izarpean’ (8); [ʂartua] ‘sartua’ (8)... Aurkitu diren oposaketa gehienak txistukari igurzakarienak diren arren, badaude txistukari afrikatuen oposaketa adierazten duen adibiderik, hala nola: [aratʂ] ‘arrats’ (9); [otʂ] ‘hots’ (9)...

Hirugarrenik, [x] hotsa izango dugu aztergai. Arestian aipatu bezala, Debarrena eskualdeko hizkera “tarteko hizkera” dela adierazi zuen Zuazok (2006; 2014; 2017). Izan ere, bere ezaugarrietan mendebaldeko euskararen zein erdialdeko euskararen ezaugarriak aurki ditzakegu. [x] hotsaren hitz hasierako ahoskera erdialde osoan zabaldurik ahoskera da, eta Deba ibar osoan ere horixe egiten da. Corpusari erreparatuta, (5), (9), (10) eta (11)

kantetan topa dezakegu hots hau. Esaterako, [xetʃi] ‘jaitsi’ (5); [xoten] ‘jotzen’ (9) eta [xota] ‘jota’ (10). Kontrara, [x] hotsarekin hasi beharrean [j] hotsarekin hasten diren hitzak ere aurki daitezke, hala nola: [joaten] ‘joaten’ (1); [jaj] ‘jai’ (2); [joateko] ‘joateko’ (6); [joana] ‘joana’ (7); [jende] ‘jende’ (9); [jawregjak] ‘jauregiak’ (10)... Ikus daitekeenez, *jaitsi* eta *jo* aditzak erabiltzeko [x] hotsa gailentzen da; aldiz, aurkitu diren besteetan [j] hotsa da erabiltzen dena.

Laugarrenik, asimilazio bustidurak izango ditugu aztergai. Zuazok (2016) dioenez Deba ibar osoan du indarra asimilazio bustidurak, tartean Debarrena eskualdean. Bilakabide hauek dira ibarrean topa ditzakegunak: /l/ → [ʎ] / i__V; /n/ → [ɲ] / i__V; /t/ → [tʃ] / i__V (hauek egun oso bizirik dirauten bilakabideak dira, oso emankorrak direnak); era berean, hauek ere aurki daitezke /ind/ → [iɲj] / __V /ild/ → [iʎj] / __V; /int/ → [iɲt] / __V (azken hauek galtzera egin dute eta gazteen jardunean eta mailegu sartu berri gehienetan ez da egiten bustidura). Albokariaren palatalizazio prozesuari erreferentzia egiteko [ʎ] hotsa erabili bada ere, corpusean agertzen diren hotsak [j] eta [ɲ] dira. Hau diote Oñederrak, Jauregik eta Epeldek (2014: 81) gaiari buruz:

Gauza ezaguna da gaztelania-euskara elebidunen artean gero eta gehiago direla /ʎ/ fonema ez daukatenak beren fonema inbentarioan. Hitzun zaharragoek fonema horren bidez gauzatzen dituzten ahoskerak, albokaritasunik gabe gertatzen dira gazteagoengan: esate baterako, ilun zaharragoen [iʎun] fonema galdu duten gazteagoengan [ijun] edo [iɲun] bihurtu da. Teknikoki esango genuke desalbokaritze bilakabide baten aurrean gaudela.

Corpusari erreparatuta, bustidura modu emankor batean agertzen dela ikusi ahal da; izan ere, (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11) kantetan aurki daitezke bustidurak, hau da, aztertu diren kanta guztietan dago bustiduraren presentzia. Adibidez, [urðiɲa] ‘urdina’ (1); [iɲawteri] ‘inauteri’ (2); [eɲiɲja] ‘ezin da’ (3); [belɲur] ‘beldur’ (3); [uiɲak] ‘uhinak’ (4); [ijeak] ‘ileak’ (5); [bijutɲik] ‘bilutsik’ (6); [bijera] ‘bilera’ (7); [bijur] ‘beldur’ (8); [doɲnu] ‘doinu’ (9); [ijeko] ‘ileko’ (10); [ɲepnek] ‘zeinek’ (11) dira testuetan zehar aurkitu diren bustiduretako batzuk. Esan beharra dago palatalizazioa egotea aurreikus zitekeen testuinguru guztietan aurkitu dela, beraz, esan daiteke, Itoizen kantaeran ere palatalizazioa oso emankorra dela.

Bustidurekin jarraituz, Hego Euskal Herriko beste eremu batzuetan bezala, aitzineko bokal itxiaren [i] ondorengo herskari horzkari ahoskabea [t] sabaikaritu egiten da. Dena den, sabaikaritze horrek aspaldi utzi zion herskari sabaikari ahoskabea [c] izateari. Izan ere, Deba ibar osoan zabaldurik dagoen hotsa afrikatu sabaiurreko

ahoskabea [tʃ] da (Zuazo, 2006), hau da, /t/ → [tʃ] / i___ V. Gure azterketa objektua diren (3), (6) eta (9) kantetan aurki dezakegu bilakabide hori. Esaterako, [itʃo] ‘ito’ (3) eta [ditʃut] ‘ditut’ (6) eta (9).

Bosgarrenik, ez partikula zenbait hitz eta adizkirekin lotzerakoan ondorio bereziak izan ohi direla dio Zuazok (2006). Deba ibarrean ere, Euskal Herriko beste txoko askotan bezala, igurzkari txistukaria [ʃ] edo [ʒ] herskari ezpainkari ahostunarekin [b] eta herskari hozkari ahostunarekin [d] elkartzen denean, herskariak ahoskabetu egiten direla dio, hau da, /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___ V. Halaber, bi txistukari igurzkari elkarren jarraian daudenean horiek afrikatu bilakatzeko joera Euskal Herri osoan aski zabaldurik dagoela diosku, hau da, /s/ → [tʃ] / → (+hobikari)___ (Zuazo, 2006). Bilakabide hau bi tokitan gerta daiteke, bata hitz barnean eta bestea bi hitzen elkarketan. Zuazoren (2006) esanetan, Deba ibar gehienak mendebaldearekin bat egiten du eta bi hitz batzerakoan bilakabide hau ez da gauzatzen. Dena den, Debarrenan – Deba eta Mutrikuk, batez ere – bi hitzen arteko elkarketa sarri entzuten dela dio. Gure corpusari dagokionez, txistukari igurzkarien ondorengo hotsek aldaketarik jasaten ote duten begiratuta, ez da bilakabide hau gauzatzen delako frogarik testuetan. Are, gure testuetan dauden frogak txistukari igurzkariaren ondoren ekoizten den herskariak bere horretan mantentzen direla adierazten digute, kanta hauetan ikus daitekeen moduan: (1), (6), (7), (8). Esaterako, hitz hauetan ikus daiteke: [eʒðut] ‘ez dut’ (1); [otʃajju] ‘hozkailu’ (6); [eʒða] ‘ez da’ (7); [eʒðuɣu] ‘ez dugu’ (8). Gauzak horrela, ondoriozta daiteke, Euskal Herri osoan aski zabaldurik dagoen /s/ → [tʃ] / → (+hobikari)___ bilakabidea Itoizen kantetan ez dela betetzen.

Seigarrenik hizpide izango den fenomeno Debarrena eskualdeko ‘tarteko hizkera’ delako erakusgarrietako bat da. Debarrena eskualdeko hizkera, esan moduan, ‘tarteko hizkera’ moduan sailkatu da euskalkien inguruko azken ikerketetan; hizkera batetik besterako aldaketa gauzatzen den hizkera eremu moduan, alegia. Debarrena eskualdeko hizkerak mendebaldeko hizkeratik eta erdialdeko hizkeratik hartzen ditu ezaugarriak. Erdialdeko euskaratik hartzen duen ezaugarrietako bat *izan*-en pluraleko adizkietako -e- erroa da. Gure corpusari erreparatuta (1) eta (3) kantetan aurki dezakegu pluraleko -e- erroa: [ʒera] ‘zera’ (1) eta [ɣera] ‘gera’ (3), kasu. Testuetan zehar ez da -e- aditz erroa ez den beste errorik aurkitu *izan* aditzaren pluraleko adizkiak egiteko.

Itoizen kantagintzan euskalkiek duten presentziaren azterketarekin amaitzeko, zazpigarrenik, Debarrena eskualdeko bereizgarria den fenomeno bat izango da hizpide.

Hain zuzen, *joan* aditzaren adizki trinkoa (euskara batuaz ‘*doa*’ gisakoa) barnean [x] hotsa erantsita osatzen da. Ezaugarri horren adibide bakar bat aurkitu ahal izan dugu gure corpusean: [dixuʃ] (11), hain justu. Testuetan zehar ez da *joan* aditzaren adizki trinkoak egiteko bestelako modurik.

4.2. Metrikaz eta diptongoez

Itoizen abestiak entzutean fenomeno askok deitzen dute arreta, izan ere, hain da berezia abestietako intonazioa ezen batzuetan letra ulertzea bera ere ia ezinezkoa den. Bide horretan, lan hau egin ahal izateko transkripzio fonetikoekin nembilela, diptongoen auzia azpimarragarria iruditu zitzaidan; izan ere, euskarazko testuinguru arrunt batean entzuten ez diren hotsak direlako ustea sortu zitzaidan.

Xabier Payak (2013) bertsolaritza diskurtso neurtu, errimatu eta kantatuen artea dela dio. Koplari ere erreparatzen dio Payak, eta honela ezaugarritzen du: 10 eta 8 silabako bi lerro-pare zein 8, 8, 10 eta 8 silabako lau lerro izan ditzake eta metrikaren bitartez izendatzen den generoa da. Baladei buruz ere maitasun istorioak, heriotza bortitzak, hilketak edo antzekoak kontatzen dituzten hitz neurtuzko narrazio laburrak direla dio. Ahozko literaturaren genero horiek guztiek amankomunean duten elementuetako bat neurria da; hau da, genero horiek guztiek ez dute neurri bera, baina neurria dute, silaba kopuru jakin batek osatzen du bertso edo kanta horietako ahapaldi bakoitza.

Euskal letren garai emankorretako bati erreparatuta ere neurriak garaiko poeten artean izan zuen garrantzia ikus dezakegu. Euskal Pizkundeko (1876-1936) *Olerkarien* idazmoldean, Arana-Goirik hizkuntzaren eta literaturaren funtzioak aldatzeko asmotan garatutako proposamenek presentzia izan zutela antzeman dezakegu. Izan ere, Arana-Goiriren eta bere ondorengo olerkarien helburuetako bat kultura propioa eta berezia edukitzea zen (Otaegi, 2020). Jose Maria Agirrek (1896-1933) - *Xabier Lizardi* moduan ezaguna - esaterako, olerki hizkuntz berezia sortu zuen estilazioaren bidez, soberan zeuden osagai morfosintaktikoak soildu eta hizkuntza eliptikoa erabili zuen, aditzak, lokailuak eta beste ezabatuz (Otaegi, 2020). Lizardik garatutako metrika zorrotza gauzatzeko literatura baliabide andana erabiltzen zuen, horietarik bat Arana-Goirik proposaturiko “Diptongoen legea” zen (Otaegi, 1994). Lege horretarako proposatu zuena sinalefen erabilera izan zen, hau da, hitz baten bukaerako bokala hurrengo hitzaren hasierako bokalarekin –edota bokalekin– bat egitean datzan lizentzia metrikoaren (Literatura Terminoen Hiztegia, Euskaltzaindia) erabilera bultzatu zuen. Sinalefetan

elkartzen diren bokalak ezberdinak badira diptongoa osatzea gerta daiteke; baina diptongorik osatzen ez duten bokal elkarketak ere gertatzen dira.

Ahapaldiak neurri jakin bat izan dezan erabiltzen den literatur baliabidea sinalefa dela esan dugu. Dena den, esan beharra dago, sinalefa ez dela ahapaldiak izan behar duen neurria izateko erabiltzen den metodo bakarra; izan ere, fonemen elipsiak ere badu horrelakoetan presentzia. Prozesu fonologiko hori testuinguru jakin bateko fonemak isiltzean edo galtzean datza, horrela beharrezkoa den neurrira mugatuz.

Ahapaldien neurriarekin zerikusia duten baliabideekin jarraitzeko, azkenik, sineresia zer den azalduko dugu. Sineresia sinalefaren antzeko prozesua da; izan ere, sinalefak hitz baten azken eta hurrengoaren lehen bokalak elkartzen baditu ere, sineresiak bi bokal (eskuarki bi silaba egingo lituzketenak), silaba metriko bakar bat egitea ahalbidetzen du, diptongoa balitz bezala emanaz (Literatura Terminoen Hiztegia, Euskaltzaindia).

4.2.1. Itoiz eta diptongoak¹⁰

Ez dira berriak Itoizen ahoskerak zerbait *desberdina* iradokitzen duela dioten jende soilaren iritziak; akaso, beste elementu musikalen artean, horrek ere badu garrantzirik bere ospean eta sonan. Aitor dezadan, niri, Itoizen ahoskeratik eta kantaeratik atentzioa asko deitzen didan prozesu fonologikoetako bat diptongoen auzia da. Jakin badakigu euskarazko diptongoen sortze bide bat baino gehiago dagoela, eta bi, bederen, badituela. Hau dio Sareko Euskal Gramatikak¹¹ diptongoei buruz:

- 1) “Bi bokal elkarren ondoan egokitu eta silaba edo erritmo unitate berean ahoskatzen direlako. Hori gertatzen da euskaraz, esaterako, *egin* hitza ahoskatzean bokal arteko /g/ ahultzea galtzeraino iritsi eta elkarren ondoan gelditzen diren bokalak silaba bakarrean ahoskatzen direnean [ejn], [ej].
- 2) Kontsonante bat irristari bihurtzen delako. Halakoa da italierazko *bianco* (cf. gazt. *blanco*) eta hemen sartu beharko genituzke euskaraz despalatalizazioak sortutako

¹⁰ [w] eta [j] hotsen bidez sortzen ez diren diptongoak ezaugarritzeko “ ” txapeltxo erabili da. Adibidez: [e].

¹¹ Atal hau garatzeko *Sareko Euskal Gramatikako* “Euskararen bokal sistema” erabili da: <Euskara Institutua, EHU, "Hots motak, euskal soinuak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg ISBN: 978-84-693-9891-3>

[teɫa] > [tejla] bezalakoak ere, nahiz eta horietan ez den kontsonantea osorik aldatzen, baizik eta sabaikaritasuna (irristari bihurtuta) beregaintzen. *Bokalerdia* esaten zaio diptongoan bokal silabagilearen ondoren datorren nolakotasun bokalikoari (adibidez, *gau* [gaw] eta *kontsonanterdia* diptongoan bokalaren aurretik datorrenari (adibidez, *eguen* [egwen]).

Euskaraz zabalduenak dauden diptongoak beheanzkoak dira: <ai>, <ei>, <oi>, <au>, <eu> eta gutxiago <ou>. Hala ere, goranzko bakan batzuk ere gertatzen dira ekialdeko hizkeretan (Mitzelena 1961 [1977], 1985).”

Segidan, kantetan agertzen diren diptongoen sortze bideak izango dira hizpide eta haien sailkapen bat proposatuko da, horretarako, taula batean diptongo kopuruen datu zehatzak jasoko dira lehenik, eta bigarrenik, diptongoen analisisa egingo da. Emaitzak 2. taulan ikus daitezke.

Diptongo mota	Diptongo kopurua ¹²
Euskarazko bide nagusienetatik sortuak	138
Sinalefa bitartez sortuak	27
Elisio fonetiko bitartez sortuak	16
Sineresia bitartez sortuak	19

2. taula: diptongoak haien sorbideen arabera

Euskarak diptongoak sortzeko aurrez aipaturiko bi prozesu horiek izanda nagusiki, ulergarritzat jo dezakegu gure corpusari erreparatuta bi bide horiek jarraituz sorturiko diptongoak aurkitzea. Eta horrelaxe da; izan ere (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11) abestietan aurki ditzakegu horrelako diptongoak, hau da, abesti guztietan daude euskarazko diptongoen sortze prozesuan nagusitzen diren bi bideak. Adibide moduan ikus hitz hauek: [baajs̺] ‘bahaiz’ (1); [ʃojlik] ‘soilik’ (2); [ʃajt] ‘zait’ (3); [tawpaðak] ‘taupadak’ (4); [gawa] ‘gaua’ (5); [awtoβuʃetik] ‘autobusetik’ (6); [najs̺] ‘naiz’ (7); [yawðe] ‘gaude’ (8); [gojʃak] ‘goizak’ (9); [awtayaj] ‘hautagai’ (10); [awrikularetan] ‘aurikularretan’ (11).

Dena den, diptongoen azterketa sakonago bat eginda, euskaraz ohikoak ez diren bokal elkarketa batzuk ageri direla ikus daiteke. Izan ere, batetik, euskaraz ohikoenak

¹² Abestiz abesti ateratako datuak *Eranskinak* atalean (3. *ERANSKINA*).

diren joera beherakorra duten diptongoak baino gehiago, joera gorakorra duten diptongoak ageri dira Itoizen kantuetan; eta, bestetik, diptongoaren osaeran [j] eta [w] *kontsonanterdiak* agertzen ez diren diptongo andana dago letretan. Diptongo horiek sailkatu ahal izateko literatura baliabideak erabiltzera jo behar izan da; horien bitartez diptongo bilakatze prozesua azaltzeko eta sailkatzeko proposamen bat garatu delarik. Gauzak horrela, euskarazko prozesuaz gain, diptongo bilakatzeko hiru prozesu proposatzen dira: batetik, sinalefak eragindako diptongatzea; bigarrenik, elisio fonetikoak eragindako diptongatzea eta, azkenik, sineresiak eragindako diptongatzea.

Sinalefei¹³ dagokionez, arestian aipatu moduan, sinalefa erabiltzen den kasu gehienetan hurrenez hurren dauden bi bokalek silaba bakar bat osatzea ahalbidetzen da, hala ere, badago sinalefa erabili eta diptongo bilakatzen ez den kasurik. Lan honetan, sinalefa erabili eta diptongo izaten amaitu dutenak hartuko dira kontuan. Gauzak horrela, gure corpuseko (1), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11) kantetan aurki ditzakegu sinalefak eragindako diptongatze prozesuak. Adibide moduan ikus ditzakegu, hala nola: [lege_onena] ‘lege onena’ (1); [ene_aşala] ‘ene azala’ (5); [ate_au] ‘ate hau’ (6); [aşterø_ejten] ‘astero egiten’ (7); [ayø_espalojan] ‘hago espaloian’ (8); [deðø_ejn] ‘dedo egin’ (9); [gawerðikø_eştula] ‘gauerdiko eztula’ (10); [atşeaşka_arin] ‘atzeraka arin’ (11)...

Elisio fonetikoak bi bokal elkarren ondoan egokitu eta silaba edo erritmo unitate berean ahoskatzeak eragindako kontsonantearen galeratzat har ditzakegu. Gure corpuseko elisioak bi motatakoak dira. Mota batek euskal diptongoen araei jarraitzen diete (7), (8), (9) eta (10) kantetako elisioek, kasu. Esaterako: [araştoj] ‘arrastorik’ (7); [baj] ‘barik’ (8); [aj] ‘ari’ (9) eta [eşkejta] ‘eskegita’ (10). Beste motak, aldiz, euskal diptongoetan nagusienak ez diren adibideak dira eta (1), (7) eta (8) kantetan aurki ditzakegu. Kasu honetan hauek har ditzakegu adibide moduan: [ø] ‘edo’ (1) eta (7); eta [aø] ‘hago’ (8). Gaztelaniaren kasuan, hitzen arteko erdiko eta beheko bokalen bilkurak direla eta, Navarro Tomásék (1997; apud Hualde et al., 2008) dio altuera desberdina duten bokaletan altuena labur daitekeela edo igorritaria izateraino; hala nola, *me alegre* hiru modutara ahoska daitekeela diosku: *m[æ]legro*; [æ] irristarira [j] igota *m[ja]legro* edo ezabatu *m[a]legro*. Bestetik, altuera bereko bi bokaletan lehenengo dagoena laburtzen dela dio; adibidez, /oe/ → [we]; /poesía/ → [pweşía]. Gure kasuan antzeko zerbait ikusten

¹³ Sinalefa bidez bi bokalen elkarketa gertatu dela irudikatzen “_” ikurra erabili da. Adibidez: [e_o]

dugula dirudi: bokal biak erdiko bokalak izanda [e] eta [o], lehenengo dagoena laburtu da, [ɛo] sortuz. Esan beharra dago, hala ere, lan honetako ikerketa nahiko ikerketa inpresionista dela, hau da, espektrogramen eta prozesu fonetikoak ikusteko euskarrien faltan, entzute hutsez ateratako ondorioak dira, beraz, batzuetan zaila da zenbait prozesu fonetikoren nolakotasunaz konturatzea, izan bokalen luzerarena, laburtzearena, igotze prozesuena...

Sineresiei dagokionez, corpusean zehar baliabide honen bitartez sorturiko zenbait diptongo egon badaudela esan daiteke, izan ere (1), (6), (8), (10) eta (11) abestietan aurkitu dira honelakoak. Ikus, besteak beste: [golpatʃɛa] ‘kolpatzea’ (1); [βɛar] ‘behar’ (6); [gawɛan] ‘gauean’ (8); [kataloɣoa] ‘katalogoa’ (10) eta [kamaleɔjentsat] ‘kamalehoientzat’ (11).

Amaitzeko, arestian aipatu dugu ekialdeko euskaran izan ezik, joera gorakorra daukaten diptongoak ez direla agertzen euskaraz. Esan gabe doa, orain arteko ariketan adibide moduan jarri ditugunetako asko joera gorakorreko diptongoak direla. Dena den, puntu honetan atentzio berezia deitzen duten joera gorakorreko zenbait agerpen ekarri nahiko nituzke, hala nola: [eʃjan] ‘ezean’ (4); [djen] ‘diren’ (6); [iratjen] ‘irratien’ (10); [etsjan] ‘etsian’ (11); [burwa] ‘burua’ (11)...

4.3. Herskariak eta hurbilkariak: [b, d, g] eta [β, ð, ɣ]

Euskara Institutuak *Hots motak, euskal soinuak* (SEG) argitaratutako lanaren arabera euskaraz dauden herskariak hamaika dira: [p, b, t, d, c, ʃ, k, g, ph, th, kh] ([ph, th eta kh] ez daude euskararen hizkera guztietan). Lan honetan, herskari ezpainkari ahostuna [b], herskari horzkari ahostuna [d] eta herskari belar ahostuna [g] izango ditugu hizpide. Izan ere, hots horien ekoizpen testuingurua aldatzen delarik, hots horien nolakotasuna ere aldatu egiten da, hau da, testuinguru jakin batzuetan fonema horiek ekoiztu beharrean fonema horien alofonoak ekoizten dira: [β, ð, ɣ] hotsak, hain justu (Hualde eta Ortiz de Urbina, 2003: 44). Hualdek (2013) gaztelaniari buruz egindako lanean, hots horiek hurbilkari moduan ezaugarritzen ditu, izan ere, hasiera batean igurzkari moduan deitu baziren ere, haien tasunek igurzkariak ez direlako ebidentziak ematen dituzte eta hurbilkari deitzea egokiagoa da (Hualde, 2013: 132).

Arestian aipatu moduan, hotsen testuinguruak eragiten du hots bat ala bestea ekoiztea. Kasu honetan Hualdek (2013: 130) proposatzen du testuingurua itxia denean herskariak ekoizten direla [b, d, g]; eta, aldiz, testuingurua irekia denean hurbilkariak ekoizten direla [β, ð, γ]. Hau da, [b, d, g] hotsak etenaren, hots sudurkarien eta [d]-ren kasuan albokariaren ondoren ekoizten dira, gainerako kasuetan haien alofonoak dira ekoizten direnak. Ikus 2. irudia.

/b/	[b]	tras pausa, tras nasal	<i>van</i> [bán], <i>ambos</i> [ámbos]
	[β]	otros contextos	<i>se van</i> [seβán], <i>desván</i> [dezβán], <i>calvo</i> [káλβo], <i>árbol</i> [árβol]
/d/	[d]	tras pausa, tras nasal, tras lateral	<i>dan</i> [dán], <i>andan</i> [áɲdan], <i>caldo</i> [káλdo]
	[ð]	otros contextos	<i>lo dan</i> [loðán], <i>los dan</i> [lozðán], <i>arde</i> [árðe]
/g/	[g]	tras pausa, tras nasal	<i>ganso</i> [gánso], <i>tango</i> [tángo]
	[γ]	otros contextos	<i>hago</i> [áγo], <i>rasgo</i> [rázγo], <i>algo</i> [ályo], <i>orgullo</i> [oryújo]

2. Irudia: Herskariak eta hurbilkariak (Hualde, 2013: 130)

Mariano Nicolásek *La pronunciación como variable expresiva en el canto en español* (2018) lanean Hego Amerikako folklorean ezaguna den *La Tempranera* abestia aztertu zuen hainbat aldaera eta bilakabidetan arreta berezia jarritz. Zehazki, Daniel Altamiro, Eduardo Falú, Silvia Lallana, Mercedes Sosa eta Silvia Pacheco abeslariak kanta interpretatzeko orduan ekoizten zituzten hotsak izan zuen aztergai Nicolásek. Beste hots batzuen artean, herskariak eta hurbilkariak auzia izan zuen analisi objektu moduan, eta ondorioztatu zuena zera izan zen: Silvia Lallanak, Silvia Pachecok eta Mercedes Sosak hitz batzuen exekuzioari enfasia eransteko asmoarekin, testuinguru irekian araua den hurbilkaria ez dute ekoizten, eta horren ordez, herskaria ekoizten dute (Nicolás, 2018: 18-19).

4.3.1. Herskariak eta hurbilkariak Itoizen

Nicolásek (2018) bere ikerketan egindako lanari jarraiki, atal honetan Itoiz taldeak ekoizten dituen herskariak ezpainkari, horzkari eta belar ahostunen [b, d, g] eta horien alofono hurbilkariak [β, ð, γ] agerpen maila eta ze testuingurutan agertzen diren aztertzea da. Horretarako, ez da ekarriko edozein herskari edo hurbilkari, izan ere, hots horiek

egotea espero ez den testuinguruan dauden hotsak izango dira ekarriko direnak. Esaterako¹⁵, [aβar] beharrean [abar] agertzea.

3. taulak Itoizen herskariaren eta hurbilkariaren azterketaren emaitzak aurkezten ditu.

Herskari eta hurbilkari txandakatze mota	Agerpen kopurua ¹⁶
[b] eta [β]	14
[d] eta [ð]	22
[g] eta [ɣ]	40

3. Taula: herskari eta hurbilkariaren agerpena

3. taulan ez dira hotsen agerpen guztiak jasotzen; izan ere, hots horiek egotea espero ez den testuinguruan dauden hotsak izan dira ekarri direnak. Hau da, ‘baba’ hitza agertuko balitz, pentsatuko genuke bere transkripzio fonetikoa [baβa] litzatekeela, izan ere, bigarren tokian dagoen herskaria bokal artean egonik hurbilkari egingo litzateke testuinguruak hala eskatuta. Taulan, beraz, [baβa] baino, [baba] gisakoak agertzen diren kasuak jaso dira, hau da, hurbilkaria egotea pentsatuko genukeen baina herskaria ekoizten den kasuak ekarri dira.

Gure corpusaren analisiarekin hasteko, herskari ezpainkari ahostunaren [b] eta bere alofono hurbilkariaren [β] azterketarekin hasiko gara. [β] hotsa abesti guztietan agertzen bada ere (1), (2), (3), (4), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11), hots hau agertzea aurre suposatuko genukeen zenbait testuingurutan ez da agertzen, testuinguru horietan agertzen den hotsa [b] izanik. Hori, corpuseko (1), (4), (5), (6), (7), (9) eta (11) abestietan gertatzen da; hitz hauetan, besteak beste: [uʂteldu baaj̥s] ‘usteldu bahaiz’ (1); [iratia biot̥ʂ] ‘irratia bihotz’ (4); [iyoʂt̥seko biar] ‘igotzeko bihar’ (5); [telebiʂtan] ‘telebistan’ (6); [lengo batin] ‘lehengo batean’ (7); [awtobiðera] ‘autobidera’ (9) eta [xabet̥ʂen] ‘jabetzen’ (11) hitzetan.

Azterketarekin jarraitzeko horzkariari erreparatuko diogu, [d] eta [ð] hotsak egotea espero den testuinguruetan dauden ala ez aztertzeko asmotan. Gauzak horrela, gure corpuseko (1), (6), (7), (10) eta (11) kantetan ikus daitezke bilakabide horren kasuak. Izan ere, [naj duðana] ‘nahi dudana’ (1); [dirudi] ‘dirudi’ (6); [bidali] ‘bidali’ (7); [irudjen] ‘irudien’ (10) eta [aj dira] ‘ari dira’ (11) gisako hitzak aurki daitezke abestietan.

¹⁵ Ezpainkari ahostuna bokal artean dagoenez hurbilkaritze prozesua gertatu dela esperoko genuke.

¹⁶ Abestiz abestietako datuak *Eranskinak* atalean (4. ERANSKINA).

Amaitzeko, Juan Carlos Pérezek herskari belar ahostuna [g] eta bere alofonia [ɣ] ekoizteko nolakotasuna izango dugu aztergai. Gure hamaika kantei erreparatuta, horietako (1), (3), (5), (6), (7), (8), (9), (10) eta (11) abestietan aurki dezakegu bilatzen gabiltzan fenomenoak, hau da, abesti guztietan bitan izan ezik. Adibidez, [lege] ‘lege’ (1); [laguna] ‘laguna’ (3); [sajgu] ‘zaigu’ (5); [gogoak] ‘gogoak’ (6); [utşi gaβean] ‘utzi gabean’ (7); [saj gawðe] ‘zain gaude’ (8); [agurentşako] ‘agureentzako’ (9); [ðago] ‘dago’ (10) eta [tʃalo gorak] ‘txalo gorak’ (11) hitzak.

4. Ondorioak

Lan honetan egin den analisitik hiru ondorio orokor atera daitezke: batetik, Itoizen kantaeran euskalkien ezaugarri fonetiko eta fonologikoak aurki daitezke; bestetik, euskarazko ohiko diptongoak (<ai>, <ei>, <oi>, <au>, <eu> eta gutxiago <ou>) eta euskaraz diptongoak sortzeko bide nagusiak ez diren diptongoak eta diptongatze prozesuak aurki daitezke aztertu diren bi albumetan; eta, azkenik, datuek erakutsi digute herskari ezpainkari [b], horzkari [d] eta belar [g] ahostunak eta horien alofonoak diren hurbilkariak [β, ð, ɣ] egotea espero daitekeen testuingurutik kanpo erabili direla.

Euskalkiaren erabilerari dagokionez, 1. taulan ikus daitekeenez, 1. eta 3. bilakabideetan *Araua gauzatzea aurreikusten den tokian betetzen da (zenbakitan)* ataleko kopurua txikiagoa da *Araua gertatzea aurreikusten den tokian ez da betetzen (zenbakitan)* atalekoa baino. Beste bilakabideetan, aldiz, euskalkietako ezaugarriak gailendu dira. 1. eta 3. bilakabideei erreparatuta, lehenengoan 49 aldiz ez da /e/ → [i] / __ {a, e, o}; /o/ → [u] / __ {a, e, o}. bilakabidea gauzatzen, kontrara, 22 alditan gauzatu egiten da; hirugarrengoa, aldiz, xumeagoa da betetik besterako aldea, izan ere 12 alditan ez da gauzatzen bilakabidea, kontrara, 8 aldiz [x] hotsak nagusitasuna du hitz hasieran. Txistukarien neutraltzeari dagokionez, ageri diren neutralizatutako txistukariak oposaketan ageri direnak baino nabarmen kopuru handiago dela esan daiteke; izan ere, orotara agertzen diren 334 txistukarietatik, 281 neutralizatuta agertzen dira, aldiz, 53 neutralizatu gabe. Sabaikaritze prozesuari dagokionez, erabatekoa dela esan daiteke, izan ere 59 alditan gerta zitekeen sabaikaritzea eta horietatik 59tan gertatu da, hau da, ehuneko ehunean. Orokorrean, modu homogeen batean eta erabatekoan erabiltzen ez diren arren, euskalkien zantzuek Itoizengan presentzia dutela esan daiteke; hala ere, esan beharra dago, batzuen erabilera besteena baino handiagoa dela, sabaikariena, kasu; izan ere, esan bezala, ehuneko ehunean sabaikaritzen dira. Horri dagokionez, Zuazok (2006: 65)

adierazitakoa baieztatzen lagun dezake, izan ere, palatalizazioa Deba ibarrean indartsua dela baitio.

Lehenengo atalean aipatu den moduan, hizlariaren edo abeslariaren hizkuntz aldaera edo aldaera estilistikoen gauzapena berak eraiki nahi duen islapen sozialaren araberakoa (Coupland, 1981; 1985; 2006) izan daiteke. Euskalkiaren ezaugarri batzuen agerpenak, agian, izan dezakegu horrekin loturarik, hau da, euskalkiaren bitartez Itoizek bere islapen soziala modu batera eraiki du; horrek, musika egiteko zeinu propio bat emanez.

Diptongoak sortzeko prozesuei eta hotsen elisioei dagokionez, Juan Carlos Pérezek (2018) Azkoitiako Maxixatzen herri aldizkaritik ateratako hitz batzuk nahiko nituzke ekarri:

Besteak beste, Joseba Alcalde, Jose Mari Argoitia eta Bernardo Atxaga idazleekin lan egin genuen; haiek sortu zizkiguten letra batzuk. Baina hitza edo esanahia ez zen guretzat inportanteena, ez orduan eta ez orain, musika baizik. Musikaren lagungarri bat besterik ez zen letra.

Azpimarragarria da *inportanteena letra ez zelako* baieztapena, *musika baizik*; izan ere, baieztapen horrek, musikak letra determinatzen duelako ulerkera eman diezaguke, hau da, musika da agintzen duena, eta musikaren metrikan eta denboretan sartzen ez dena kimatzeko aukera dago: diptongoak sortuz, elisioen bitartez... Horrek, agian, euskaraz ohikoak ez diren diptongoak aurkitzearen arrazoietakoa bat ematen du. Izan ere, corpusean orotara euskaraz ohikoak diren 138 eta euskaraz ohikoak ez diren 63 diptongo aurkitu dira. Halaber, azpimarragarria da lanean zehar abeslariaren berezko hizkerarekin loturatik ez duten beste hots batzuk ere aurkitu direla, tartean, euskarazko seigarren bokala [y], hain justu, [ʃimeldy] ‘zimeldu’ (4) eta [eʃkatyʃ] ‘eskatuz’ (7) hitzetan aurkitu dira hotsok.

Amaitzeko, hotsen artikulazio fonetikoak kantagintzaren adierazkortasunerako duen ebidentzia aurkeztu da laneko lehen atalean. Lanaren hasieran aipatu da Nicolásek (2018: 7) fonemak berez esanahirik gabeko hizkuntz egitura modura direla, hala ere, kantagintzan eta testuinguru jakin batean adierazkortasunaren balioa har dezaketela dio. Lan honetan egin den analisi xumeak ebidentzia hori nekez frogatzen baldin badu ere, egin den herskariaren eta hurbilkariaren azterketak hori elikatu asmoa du. Izan ere, ondorioztatu da testuinguruagatik hots hurbilkariak [β, ð, γ] egotea pentsa zitekeen tokian, askotan, herskariak [b, d, g] egotea suertatu dela; horrela, hurbilketa beharrean hersketa bat gauzatuz. Aurrez esan da, halaber, Juan Carlos Pérezek garrantzia musikari

ematen ziola eta letra bere osagarri bat besterik ez zela; herskariaren eta hurbilkariaren fenomenoak, agian, bide horretan kokatu beharra dago, hau da, musikalitateak determinatutako hots ekoizpen modura, eta beraz, fonemak musika testuinguruaren arabera ekoiztutako hizkuntza egitura modura.

5. Bibliografia erreferentziak

Aristi, Pako. (1985, 2020). *Euskal kantagintza berria (1961-1985)*. Donostia: Erein.

Aurtenetxe, A. (2011). Mikel Laboa (1958-1978), tradizioa eta abangoardia, kantagintza berriaren sortzaile. *Musiker*, 18: 385-402.

Beal, Joan C. (2009). "You're Not from New York City, You're from Rotherham": Dialect and Identity in British Indie. *Music Journal of English Linguistics*, 37, 3: 223-240.

Bell, A. (1984). Language Style as Audience Design. *Language in Society*, 13: 145-204.

Bell, A. (1991). *The Language of News Media*. Oxford: Blackwell.

Bell, A. (2001). Back in style: Reworking Audience Design. En: P. Eckert J. Rickford (eds.), 139-169.

Bourdieu, P eta Boltanski, L. (1975). Le Fétichisme de la Langue. *Actes de la Recherche en Sciences Sociales*, 4: 2-32.

Carranza, R. eta Alessandroni, N. (2013). Dicción, fonética y técnica vocal: El entrenamiento vocal en clave interdisciplinaria. In Novenas Jornadas nacionales de investigación en el arte en Argentina. Eskuragarri hemen: <http://www.fba.unlp.edu.ar/9jornada2013/jornadas.html> (2020/04/28an hartua)

Chambers, J.K. eta Trudgill, P. (1999) *Dialectology* (2nd Edition). Cambridge University Press.

Coloma, G. eta Calantoni, L. (2012). *Variación fonética y el efecto de la audiencia: el debilitamiento de /s/ en dos géneros musicales*. *Revista de Lingüística Teórica y Aplicada*. 50 (2): 121-143.

Coupland, N. (1980). Style-shifting in a Cardiff Work Setting. *Language in Society*, 9: 1-12.

- Coupland, N.(1985). Hark, Hark the Lark: Social Motivations for Phonological Style-shifting. *Language & Communication*, 5 (3): 153-172.
- Coupland, N. (2001). Language, Situation, and the Relational Self: Theorising Dialect-style in Sociolinguistics. En: P. Eckerty J. Rickford (eds.), 185-210.
- Cutillas-Espinosa, J.A. eta Hernández-Campoy, J.M. (2018). Modelos Sociolingüísticos de Variación Estilística. *Tonos Digital*, 35: 1-30.
- Euskaltzaindia. *Literatura Terminoen Hiztegia*. Hemen eskuragarri: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=sineresi&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474. (2020/05/07an hartua).
- Euskara Institutua. EHU. Hots motak, euskal soinuak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg ISBN: 978-84-693-9891-3 (2020/05/07an hartua).
- Hernández-Campoy, J.M. (1996). Modelos Sociolingüísticos en la Literatura Musical, In J.M. Pozuelo Yvancos & F. Vicente Gómez (Ed.) (1996), *Mundos de Ficción: Actas del VI. Congreso Internacional de la Asociación Española de Semiótica (Investigaciones Semióticas VI)*. Murcia: Universidad de Murcia y Asociación Española de Semiótica. 871-880.
- Hualde, J. I. (2013). *Los sonidos del español*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Hualde, J. eta Ortiz de Urbina, J. (2003). *A Grammar Of Basque*. Berlin: Walter de Gruyter.
- Hualde, J. I., Simonet, M., eta Torreira, F. (2008). Postlexical contraction of non-high vowels in *Spanish*. *Lingua*, 118: 1906–1925.
- Juan Carlos Pérez. Gauza bera egiten jarraitzeak ez nau erakartzen. In Maxixatzen Azkoitia (2020/05/12an hartua). <https://maxixatzen.eus/azkoitia/1515142347915-juan-carlos-perez-gauza-bera-egiten-jarraitzeak-ez-nau-erakartzen>
- Labov, W. (1966, 2006). *The Social Stratification of English in New York City*. 2. edizioa. Cambridge University Press (1. edizioa: Washington D.C.: Center for Applied Linguistics).
- Lekuona, J.M. (1982) *Ahozko Euskal Literatura*. Donostia: Erein.

- Lekuona, J.M. (1998). Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean. In Sociedad de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza: Euskaltzaindia (Ed.) *Antoine d'Abbadie, 1897-1997: congrès international*. ISBN 84-89516-71-5: 523-534. Hendaia.
- Nicolás, M. (2018). *La pronunciación como variable expresiva en el canto español: Un estudio comparativo de la articulación consonántica en cinco versiones de La Tempranera de Carlos Guastavino*. (Lizentziatura Amaierako Lana). La Plata: Universidad Nacional de La Plata.
- Oñederra, L. "Hotsak". *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. www.ehu.es/seg ISBN: 978-84-693-9891-3 (2020/05/07an hartua).
- Oñederra, L., Jauregi, O. eta Epelde, I. (2014). Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum*, 18: 75-95.
- Otaegi, L. (1994). *Lizardiren poetika pizkundearen ingurumariaren argitan*. (Doktorego tesia). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Otaegi, L. (2020). Euskal Poesia XX. Mendean. *Auñamendi Entziklopedia [on line]*. [2020/05/10ean hartua]. Eskuragarri hemen: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskal-poesia-xx-mendean/ar-153805/>
- Paya, X. (2013), *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia*. Etxepare Euskal Institutua: Donostia.
- Trudgill, P. (1974). *The Social Differentiation of English in Norwich*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Trudgill, P. (1983). Acts of conflicting identity: The sociolinguistics of British pop-song performance. In Peter Trudgill (ed.), *On dialect: Social and geographical perspectives*: 141-160. Oxford, UK: Blackwell.
- Simpson, P. (1999). Language, culture and identity: With (another) look at accents in pop and rock singing. *Multilingua*, 18 (4): 343-367.
- Zuazo, K. (2006). *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta Tokiko batua*. Eibar: Badihardugu Euskara Elkarte.

Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, K. (2017). *Mendebaldeko euskara*. Donostia: Elkar.

6. Ikus-entzunezko erreferentziak

Itoiz (1983). *Musikaz Blai*. Hemen eskuragarri:
<https://www.youtube.com/watch?v=EGaS8G8UU14&t=1220s>

Itoiz (1985). *Espaloian*. Hemen eskuragarri:
<https://www.youtube.com/watch?v=oAgKIkCy1V4>

7. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: ABESTIEN TRANSKRIPZIO FONETIKOAK

1. ABESTIA

ABESTIA: USTELA (MUSIKAZ BLAI, 1983)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
Nire lagun xelebrena nire mailu urdina farretan irabazle usteltzen ari da da da inpotentzia aurean lege onena izandakoa... ez dut sinisten legeaz lege-gizon mailu gabe naiz ni	nire lagun feleβrena nire majju urđina faretan irafasle ušteltşen ari đa đa đa impotentşı awrean lege_onena _jşandakua eşđut şınıştın leyeaş gışon leye maju gaşe naiş ni
Usteldu bahaiz zer egingo didate mailu behar zaitut... ez usteldu	ušteldu baajş ser eyıngo đie maju βear şajtıut eş ušteldu
Ez pentsa izarrak edo metaforak kolpatzea nahi dudana ezta ere poemak egin gaizki joatenzaidanean mahiak, kristalak... apurtzea baizik defentsa onena zara legeen gorilen aurean.	eş pentsa _jşarak ęo metaforak golpatşea naj duđana eşta_ere pęemak egin gaişki joaten şatenea:n majak kristalak apurtşia defenşa onena şera legeen gorilen awreş
Usteldu bahaiz zer egingo didate mailu behar zaitut... ez usteldu	ušteldu baajş ser eyıngo đie maju βear şajtıut eş ušteldu

2. ABESTIA

ABESTIA: SAFARI (MUSIKAZ BLAI, 1983)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Begi lagunena ehizean hiri hontan nabil fragiltasunaren hatzak hautsen euria solik hitz itzaliak graffiti zahar batean ahotsa komunetan inauteri hutsa, manikien tribu topaketak buzetan jai alai izan dadin... safari oh... ehizean nabil.</p>	<p>beyi layunen ejsean iri o:ntan nabıl fraxiltaşunaren atşak awşen ewria şojlik itş itşaliak grafiti şaar βatian aotşa komunetan ıñawteri utşa manikien triβu topaketak buşetan jaj alaj işan dađın şafari uo ejsean nabıl</p>

3. ABESTIA

ABESTIA: LARUNBATEN AZALA (MUSIKAZ BLAI, 1983)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Larunbata iritsi zait muermoa lehertu nahiz ilusioa piztu nahiz iheserako dut gurpil hilak</p> <p>zigarroen kepean esploradorea gruman tokata baten entzuna heroeak priban ito dira</p> <p>galtzaileen zama ezin da igo beldur beruna inoiz hilgo</p> <p>Trafiki asko buruan zu tunelako laguna gu erregeak zaraman disparatzen eroriko gara</p>	<p>larumbata iritşı şajt mwermua lertu nais iluşio piştu nais ieşerako đut gurpil ija</p> <p>şıyaroen kepean eşplorađorea yuman tokata βaten entşuna priβan eroeak itfo đira</p> <p>galtşajen şama eşınja iyo belşur βeruna ipoiş ilyo</p> <p>trafiko aşko βuruan şu tuneleko laguna gu ereyeak şaraman dişparatşen eroriko yera</p> <p>galtşajen şama eşınja iyo belşur βeruna ipoiş ilyo</p>

4. ABESTIA

ABESTIA: AS NOITES DA RADIO LISBOA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
Espazioan ortez ertzik ez... lehiotik at argiak bustitzen du nere ontzia grabitate ezean nigan oriomen oro iragana bihurtzen da gardena	españoak ortseak ertserik ez lehotik at argiak bustitşen du nire ontşia graβitate eşjan orojmen oro irayana βiurtşen da yawrdena gardena
Lurraren azala ximeldu zen harrizko uhinak, plastikozko mende infinitora narama, ni naiz Ulises planetaren hautsak haizeak zabaltzen ditu orbean	luraren aşala řimeldy şen arişko uşnak plaştikozko menđe iņfinitora narama ni najş ulişeş planeten awtşak ajseak şabaltşen orβean
Itzalean logelan flexoaren ondoan irratia bihotz baten taupadak nahasten ziren Radio Lisboaren emisioez gauaren azken mugetan... mugan	itşalian loyelan flekşoaren oņđoan irratia biotş tawpađak naaşten naaşten şiren rađjo lişβoan emişioeş gawaren aşken muyetan muyan
	luraren aşala řimeldy şen arişko uşnak plaştikozko menđe iņfinitora narama ni najş ulişeş planeten awtşak ajseak şabaltşen orβean

5. ABESTIA

ABESTIA: MAREA GORA (MUSIKAZ BLAI, 1983)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
Adibidez cheri ene azala ikusi erromantzearen biktima ta marea jetsi jadanik erne zait abentura nahia tori ero-litroak garagardoz ileak horitzen zaigun	ađiβiđeş řeri ene_aşala_řkuşi eromantşen biktima ta maria xetři jađanik erne şajt aβentura naja tori ero litroak garayarđoş ijeak oritşen şajgu
Marea gora marea behera Marea gora marea behera (BIS)	maria gora maria bera maria gora maria bera
Gaua lehertu da gure ezpainetan azken tabernan gaude musikaz blai autobide honen bukaeran ilunaren uhinak berriz jetsiko dira igotzeko bihar gaez.	gawa leertu da yure eşpainetan aşken taβernaņ gawđe muşikaş blaj awtoβiđe onen bukaeran iņunaren uşnak beriş xetřiko đira iyotşeko biar yawas
...berriz jeitsiko dira igotzeko bihar gaez.	beriş xetřiko đira iyotşeko biar yawas

6. ABESTIA

ABESTIA: EGUN MOTELA (ESPALOIAN, 1985)	
LETRA	TRANKRIPZIO FONETIKOA
<p>Autobusetik behera zigarroa lurrean lausotuz eskailera gora giltzaren metal hotsa ate hau gizendu dela dirudi argia piztu behar iluna desegin zapatak aparkatzeko tokia tokia bilatu behar sukaldean hotzgainua hilkutxa dirudi afaltzeko gogoak kafe bero batean urtu ditut zigarro bat piztu nahi</p> <p>hauxe da egun motela berriz aspertuko naiz beti histori berdineaz</p> <p>tokataren gain dagoen diskoak hautsa azalean eseri behar naiz oinak bilusik finen gainean telebistaren zaratak betetzen aidea</p> <p>iheserako botoirik banu autobideen arrai horiak bukatzen diren puntura joateko ta modernoak "english speaking"</p> <p>hauxe da egun motela berriz aspertuko naiz beti histori berdineaz</p>	<p>awtoβuβeetik beera ʒiʔarɔa lurean lawʒotuz eʒkalera gora giltʒaren metal otʒa ate_aw giʒendu dela dirudi arʔia piʒtu bear ijuna deʒegin ʒapatak parkatʒeko tokia tokia biʒatu bear ʒukaldean otʒgaijw_jlkutʒa ðiruði afaltʒeko gogoak kafe βero βaten urtu ðiʔʒut ʒigaro βat piʒtu naj</p> <p>awʒe ða eyun motela (x3) berʒi aspertuko najʒ beti_ʒtori berðiʒeas</p> <p>tokatan gajɳ dayɔen diʒkoak awtʒ aʒalean eferi βeʒar najʒ oɳak biʒutʒik efeme gaɳean telebʒtan ʒatak betetʒen aʒdea</p> <p>jeʒerako βotojɳ banu awtoβiðen arai oriak bukatʒen djen puɳtura jɔateko ta moðernuk inglif ʒpikin</p> <p>awʒe ða eyun motela (x3) berʒi aspertuko najʒ betiʒtori berðiʒeas</p>

7. ABESTIA

ABESTIA: BERANDU DA (ESPALOIAN, 1985)	
LETRA	TRNSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Lehengo batin bidali nuen Sherlock Holmes Watson-ekin ene andre ideiala, please bilatzeko eskatuz</p> <p>Astero egiten gendun bilera luza bat</p>	<p>lengo batin bidali nun ʒerlo xolmeʒ watʒonekin ene aɳdre idejala pliʒ biʒatʒeko eʒkatyʒ</p> <p>aʒtero_ ejten ɳendun</p>

<p>detektibe haiek beti informe berbera zen ematen zitadena iribarre etsiaz</p> <p>"Ez, Sigrid erregina ez da hiri guztian azaltzen arrastorik batere utzi gabe joana dirudi."</p> <p>Ni ere ibiltzen naiz ene maitearen soineko pusketa bat-edo bere painelu horia aurkitzeko asmua desio alper horrez.</p> <p>"Ez, Sigrid erregina ez da hiri guztian azaltzen arrastorik batere utzi gabe joana dirudi."</p> <p>Berandu da, berandu da berandu da niretzako Berandu da, berandu da berandu da niretzako Ez dut sekula aurkituko nire Sigrid erregina... ...sekula ez dut...</p>	<p>bijera luçe bat detektiße ajek beti imforme berbera şen ematen şidatena irißare etşias</p> <p>eş şiyrit ereşina ezða iri guştian aştaltşen araştıok bat batere utşı yaşbean joana dirudi joan joana</p> <p>ni ere_jßiltşen najş ene majtearen şojneko puşketa bat eo bere paneluoria awrkitşeko aştma deşio alper oreaş</p> <p>eş şiyrit ereşina ezða iri yuştian aştaltşen araştıok batere utşı gaşbean joana dirudi joan joana dirudi</p> <p>beraņdu da beraņdu da beraņdu da niretsaķo beraņdu da beraņdu da beraņdu da niretsaķo eş đut şekula awrkituko nire siyrit ereşina</p>
--	---

8. ABESTIA

ABESTIA: ESPALOIAN (ESPALOIAN, 1985)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Gauean izkututzen haiz dena hain simple izan behar zan. Hor hago inoren zai, hire koartada da.</p> <p>Inoiz hain fina izan ez den hariari lotua, bilur baik tira egiten arrisku ederra.</p> <p>Zai gaude...gu gu kalean zehar, erropa ilunak aurpegi zuriak ...eta ez ez dugu sinisten, ... ez dugu sinisten,</p>	<p>gawean iřkutatsen ajş dena_ĵn şimplea_ĵşam beař şan or ayo_ĵnoren şaj ire koartaða đa</p> <p>ĵnojş ajm ĵin iřan eş den ariari lotu:ta bijur ßajk tira ejten ariřku eđera</p> <p>şaj gawđe gu gu kalean şear eropa ĵjunak awrpeyi şuriak ta eş ezđuyu ĵniştin ezđuyu ĵniştin ezđuyu ĵniştin</p>

<p>Hor dago izarpean izkin danetan hiltzen. Ixil ixilik hago bideari aurre egiten.</p> <p>Hor hago espaloian semaforo gorrian zulo baten sartua dela eta ...</p>	<p>aor ayo iřarpian iřkiŋ danetan iltřen iřil iřilik aó biđeari awr_eyiten</p> <p>aor ayo _eřpalojan řemaforo gorian ta řulo řaten řartua ariřku eđera đela ta</p> <p>řaj yawđe gu gu kalean řear eropa ijunak awrpeyi řuriak ta eř ezđuyu řiniřten eřđuyu řiniřten eřđuyu řiniřten</p>
--	---

9. ABESTIA

ABESTIA: TAXI HORIAK (ESPALOIAN, 1985)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Laister autobusera altxatuko naiz "dedo" egin tren bat hartu ze jende xeibre estazioetan!</p> <p>Gutzizat botako ditut arrats bakartiak zinema hutseetan gauak, goiziak, jendea</p> <p>Fenderraren tipoa kalean joten paranoikoen hiri-babes batentzako doinu izkutuak, Viscontik sekula ez du ametsetan egingo beraz.</p> <p>Ene agurrentzako taxi horiak nahi ditut ikusi ez zapi txuriak, ez ta malkoak</p> <p>Ari dira hitzak ari dira hots! ari dira zaratak... ---nazkatzen ari naiz hiri honeaz!</p>	<p>lajřter awtobiđera altřatuko najř deđo_ejn o trem bat artu ře jeŋde felebre_řtařioetan</p> <p>gutřitřat botakojřfut aratř bakartik řinema utřeetan gawak gojřak eta jeŋdea</p> <p>feŋderaren tipoa kalean xoten paranojkwen iriřařeř řatentřako dojn_w_eřkutuak biřkontik řekula eř ež đw_ameřetan ejŋgo řera:ř</p> <p>ene agurentřako tař oriak naj đitřut ikuři nik eř řapi řřuriak eřta malkoak</p> <p>ari đira itřak ari đira otř aj đira řaratak nařkatřen ari najř iri oneař</p> <p>ari đira itřak ari đira otř aj đira řaratak nařkatřen ari najř iri oneař</p>

	naşkatşen ari najş naşkatşen aj najş (x3)
--	--

10. ABESTIA

ABESTIA: ABAR IRRATIA (ESPALOIAN, 1985)	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Nagusi gabeko ahoa mintzo zait diala! ... non habil hi! gauetz argi beltzez...abar...abar... proposatzen dit irudien katalogoa, hautagai bigarren eskuko jauregiak salgai</p> <p>Metro Goldwineko leoiak karietaz jota dago autosexoen iragarleak zakil multzo bat estulka hiltzaile bat paroa balak aidean eskegita biktima hautatuaren zai...zai.. biktimaren zai... ...hago hildotik at.</p> <p>Ileko minak osatzeko sendabelarrak efemeak ala arrak (irratien sexoaz) misilak, koheteak supositorioen forma dute gerra eta ipurdia...gauerdiko estula.</p>	<p>nagusi gaβeko_aoa mintşo şajt diala non aβil i gaweş argi βeltşez aβar propoşatşen dit irudjen kataloşoa_awtaşaj bişaren eşkuko jawregjak şalşaj</p> <p>metro goldineko leojak karjeşaş xota đago awtoseksoen iragarlik şakil multşo eştulka iltşaje βat paroa balak ajđean eşkejta biktima awtatuaren şaj şaj biktimaren şa:j ago ildotik at</p> <p>ijeko mişak oşatşeko şendaβelarak efemeak ala rak iratjen şekşoaş mişijak koeteak şupoşitorjoen forma đute gera ta_jpurđia gawerđiko_eştula</p>

11. ABESTIA

ABESTIA: CLASH ETA PISTOLS	
LETRA	TRANSKRIPZIO FONETIKOA
<p>Euri tantak gordetzen naskatutako kalea hiri triste bat "After eta Post" "Psicosis Colectiva" burua hiltzen makal makal ari dira aiduruak bijilatzen dira disimuluaz.</p> <p>"Clash" eta "Pistols" antxobetatik atunetara irradi batek, etsi etsian, ematen azkeneko kantak.</p> <p>Tristeziak beteriko gelatan pakea</p>	<p>ewri tañtak gorđetşen naşkawtako kalia iri trişte βat after eta poşt şikoşiş kolektiba burwa iltşen makal makal aj dira ajđuruak bixilatşen diş dişimuluaş dişimuluaş</p> <p>klaş ta piştolş aņfoβetatik atu:netara irati βatek etşi etşjan ematen aşkeneko kañtak</p> <p>trişteşiaş βeteriko yelatan pakia:</p>

<p>ez haizerik ixiltasuna gorputzetan blai.</p> <p>Bukaera da bukaera aurrentitzen da arratsalde euritsua kamaleoientzat</p> <p>Zelai berdeetako iruduiak atzeazka arin zeinek gidatzen du kotxe hau? Are you going with me?</p> <p>Txalo gorrak jabetzen dijoaz ene Walky'ren aurikularretan eta apurka apurka erotzen naute.</p> <p>Bukaera da bukaera aurrentitzen da arratsalde euritsua kamaleoientzat</p>	<p>eş aşşerik iřiltaşuna gorputşetan bla:j</p> <p>bukaera đa bukaera_wreşentitşen da aratsalde_writşua kamaleojentşat</p> <p>şelaj řerđeetako irudiak atşeaşka_rin şenek giđatşen du kotşe aw şenek ar ju řowiθ mi</p> <p>třalo gorak xabetşen dixuş ene wolkiren awrikularetan ta purka purka erotşen nawte</p> <p>bukaera đa bukaera_wreşentitşen da aratsalde_writşua kamaleojentşat</p>
---	---

2. ERANSKINA: EUSKALKIAK ITOIZEN KANTAERAN (datuak abestiz abesti)

1. ABESTIA: USTELA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

ARAUAK	KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / __ {a, e, o} /o/ → [u] / __ {a, e, o}	6	2	4
2. ARAUA: Igurzkari txistukaria k	22	22	0
	Afrikatu	5	0
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna	0	0	0
4. ARAUA: sabaikaritzea	6	6	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V /s/ → [tş] / → (+hobikari)___.	4	0	4
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	1	1	0

7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	0	0	0
---	---	---	---

2. ABESTIA: SAFARI (MUSIKAZ BLAI, 1983)

ARAUAK	KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / __ {a, e, o} /o/ → [u] / __ {a, e, o}	3	1	2
2. ARAUA: txistukariak	Igurzkari	9	8
	Afrikatu	5	5
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna	2	1	1
4. ARAUA: sabaikaritzea	1	1	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V /s/ → [tʃ] / → (+hobikari)___.	0	0	0
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	0	0	0

3. ABESTIA: LARUNBATEN AZALA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

ARAUAK	KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / __ {a, e, o} /o/ → [u] / __ {a, e, o}	6	2	4
2. ARAUA: txistukariak	Igurzkari	18	18
	Afrikatu	3	2
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna	0	0	0

4. ARAUA: sabaikaritzea	8	8	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___ V /s/ → [tʃ] / → (+hobikari)___.	0	0	0
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	1	1	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	0	0	0

4. ABESTIA: AS NOITES DA RADIO LISBOA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}		9	2	7
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	32	30	2
	Afrikatu	8	8	0
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna		0	0	0
4. ARAUA: sabaikaritzea		2	2	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___ V /s/ → [tʃ] / → (+hobikari)___.		0	0	0
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-		0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]		0	0	0

5. ABESTIA: MAREA GORA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / __ {a, e, o} /o/ → [u] / __ {a, e, o}		7	5	2
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	12	12	0
	Afrikatu	4	4	0
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna		3	3	0
4. ARAUA: sabaikaritzea		7	7	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari) __ V /s/ → [tʃ] / → (+hobikari) __.		2	0	2
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-		0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]		0	0	0

6. ABESTIA: EGUN MOTELA (ESPALOIAN, 1985)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / __ {a, e, o} /o/ → [u] / __ {a, e, o}		9	1	8
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	25	25	0
	Afrikatu	5	5	0
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna		1	0	1
4. ARAUA: sabaikaritzea		10	9	1
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari) __ V		1	0	1

/s/ → [tʂ] / → (+hobikari)___.			
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	0	0	0

7. ABESTIA: BERANDU DA (ESPALOIAN, 1985)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}		5	2	3
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	30	28	2
	Afrikatu	9	8	1
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna		7	1	6
4. ARAUA: sabaikaritzea		7	7	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V /s/ → [tʂ] / → (+hobikari)___.		4	0	4
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-		0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]		0	0	0

8. ABESTIA: ESPALOIAN (ESPALOIAN, 1985)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}		6	1	5
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	31	15	16
	Afrikatu	1	1	0

3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna	0	0	0
4. ARAUA: sabaikaritzea	5	5	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V /s/ → [ts] / → (+hobikari)___.	11	0	11
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	0	0	0

9. ABESTIA: TAXI HORIAK (ESPALOIAN, 1985)

ARAUAK	KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}	5	1	4
2. ARAUA: Igurzkari txistukaria k	29	2	27
	Afrikatu	7	0
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna	3	1	2
4. ARAUA: sabaikaritzea	3	3	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V /s/ → [ts] / → (+hobikari)___.	1	0	1
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	0	0	0

10. ABESTIA: ABAR IRRATIA (ESPALOIAN, 1985)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}		11	1	10
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	32	32	0
	Afrikatu	7	7	0
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna		3	2	1
4. ARAUA: sabaikaritzea		8	8	0
5. ARAUA: /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V /s/ → [ts] / → (+hobikari)___.		2	0	2
6. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-		0	0	0
7. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]		0	0	0

11. ABESTIA: CLASH ETA PISTOLS (ESPALOIAN, 1985)

ARAUAK		KOPURUA	BETETZEN DA	EZ DA BETETZEN
1. ARAUA: /e/ → [i] / ___ {a, e, o} /o/ → [u] / ___ {a, e, o}		4	4	0
2. ARAUA: txistukaria k	Igurzkari	26	26	0
	Afrikatu	14	10	4
3. ARAUA: [x] hotsaren nagusitasuna		2	2	0
4. ARAUA: sabaikaritzea		2	2	0
5. ARAUA: 6. /b/ → [p] eta /d/ → [t] / (+igurzkari, +hobikari)___V 7.		0	0	0

/s/ → [t̺s̺] / → (+hobikari)___.			
8. ARAUA: <i>izan</i> aditzaren pluraleko -e-	0	0	0
9. ARAUA: joan aditzaren adizki trinkoetako [x]	1	1	0

3. ERANSKINA: DIPTONGOAK ITOIZEN (datuak abestiz abesti)

1. ABESTIA: USTELA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	12
2. Sinalefa bitartez sortuak	4
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	1
4. Sineresia bitartez sortuak	2

2. ABESTIA: SAFARI (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	8
2. Sinalefa bitartez sortuak	0
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	0
4. Sineresia bitartez sortuak	0

3. ABESTIA: LARUNBATEN AZALA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	4
2. Sinalefa bitartez sortuak	0

3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	0
4. Sineresia bitartez sortuak	0

4. ABESTIA: AS NOITES DA RADIO LISBOA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	12
2. Sinalefa bitartez sortuak	0
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	0
4. Sineresia bitartez sortuak	0

5. ABESTIA: MAREA GORA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	12
2. Sinalefa bitartez sortuak	2
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	0
4. Sineresia bitartez sortuak	0

6. ABESTIA: EGUN MOTELA (ESPALOIAN, 1985)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	17
2. Sinalefa bitartez sortuak	4
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	0

4. Sineresia bitartez sortuak	3
-------------------------------	---

7. ABESTIA: BERANDU DA (ESPALOIAN, 1985)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	8
2. Sinalefa bitartez sortuak	2
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	3
4. Sineresia bitartez sortuak	0

8. ABESTIA: ESPALOIAN (ESPALOIAN, 1985)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	12
2. Sinalefa bitartez sortuak	4
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	3
4. Sineresia bitartez sortuak	3

9. ABESTIA: TAXI HORIAK (ESPALOIAN, 1985)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	17
2. Sinalefa bitartez sortuak	4
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	6
4. Sineresia bitartez sortuak	0

10. ABESTIA: ABAR IRRATIA (ESPALOIAN, 1985)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	21
2. Sinalefa bitartez sortuak	4
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	3
4. Sineresia bitartez sortuak	7

11. ABESTIA: CLASH ETA PISTOLS (ESPALOIAN, 1985)

Diptongo mota	Diptongo kopurua
1. Euskarazko bideetatik sortuak	15
2. Sinalefa bitartez sortuak	5
3. Elisio fonetiko bitartez sortuak	0
4. Sineresia bitartez sortuak	4

4. ERANSKINA: HERSKARIAK ETA HURBILKARIAK (datuak abestiz abesti)

1. ABESTIA: USTELA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	2
[d] eta [ð]	1
[g] eta [ɣ]	5

2. ABESTIA: SAFARI (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	0

[d] eta [ð]	0
[g] eta [ɣ]	0

3. ABESTIA: LARUNBATEN AZALA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	0
[d] eta [ð]	0
[g] eta [ɣ]	1

4. ABESTIA: AS NOITES DA RADIO LISBOA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	1
[d] eta [ð]	0
[g] eta [ɣ]	0

5. ABESTIA: MAREA GORA (MUSIKAZ BLAI, 1983)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	1
[d] eta [ð]	0
[g] eta [ɣ]	5

6. ABESTIA: EGUN MOTELA (ESPALOIAN, 1985)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	6
[d] eta [ð]	4
[g] eta [ɣ]	6

7. ABESTIA: BERANDU DA (ESPALOIAN, 1985)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	1
[d] eta [ð]	14
[g] eta [ɣ]	3

8. ABESTIA: ESPALOIAN (ESPALOIAN, 1985)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	0
[d] eta [ð]	0
[g] eta [ɣ]	5

9. ABESTIA: TAXI HORIAK (ESPALOIAN, 1985)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	1
[d] eta [ð]	0
[g] eta [ɣ]	1

10. ABESTIA: ABAR IRRATIA (ESPALOIAN, 1985)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	0
[d] eta [ð]	1
[g] eta [ɣ]	12

11. ABESTIA: CLASH ETA PISTOLS (ESPALOIAN, 1985)

Mota	Agerpen kopurua
[b] eta [β]	2
[d] eta [ð]	2
[g] eta [ɣ]	3

